

**Fiskalizazio Txostena**

**Informe de Fiscalización**

**Urdulizko Udala**

**Ayuntamiento de Urduliz**

**2018**





## AURKIBIDEA / ÍNDICE

|  |    |
|--|----|
| LABURTZAPENAK.....   | 5  |
| I. SARRERA.....  | 7  |
| II. IRITZIA.....   | 8  |
| II.1    Legea betetzeari buruzko iritzia .....                                     | 8  |
| II.2    Urteko kontuei buruzko iritzia .....                                       | 8  |
| III. BARNE KONTROLEKO SISTEMEI ETA KUDEAKETA PROZEDUREI<br>BURUZKO IRIZPENAK.....  | 10 |
| III.1    Aurrekontua, kontabilitatea eta diru-sarrerak .....                       | 10 |
| III.2    Langileria.....   | 10 |
| III.3    Kontratazioa.....   | 11 |
| III.4    Transferentziak eta dirulaguntzak .....                                   | 12 |
| III.5    Beste alderdi batzuk .....  | 12 |
| IV. FINANTZAREN ANALISIA.....  | 13 |
| V. URTEKO KONTUAK.....   | 15 |
| V.1    Udala.....  | 15 |
| V.2    Urduliz Urbanismo Sozietatea SA.....  | 18 |
| ERANSKINAK .....   | 19 |
| A.1    Fiskalizazio-gai den erakundearen izaera eta ezargarria zaion legeria ..... | 19 |
| A.2    Aurrekontua eta aldaketak .....   | 19 |
| A.3    Zergak, tasak eta bestelako sarrerak .....                                  | 20 |
| A.4    Transferentziek eta dirulaguntzek eragindako sarrerak .....                 | 21 |
| A.5    Langileria-gastuak.....   | 23 |
| A.6    Ondasun arruntetan eta erosketa eta zerbitzuetan gastuak .....              | 24 |
| A.7    Emandako transferentzia eta dirulaguntza arruntak.....                      | 25 |
| A.8    Aurrekontuko zordunak eta diruzaintza.....                                  | 27 |
| A.9    Aktibo ez arrunta eta ondare garbia .....                                   | 28 |
| A.10   Urduliz Urbanismo Sozietatea SA.....  | 29 |
| A.11   Kontratazioaren analisisa .....   | 31 |
| ALEGAZIOAK .....   | 33 |



Herri -Kontuen  
Euskal Epaitegia

Tribunal Vasco  
de Cuentas Públicas

|   |           |
|---|-----------|
| <b>ABREVIATURAS .....</b>   | <b>49</b> |
| <b>I. INTRODUCCIÓN.....</b>   | <b>51</b> |
| <b>II. OPINIÓN.....</b>   | <b>52</b> |
| II.1 Opinión sobre el cumplimiento de la legalidad.....   | 52        |
| II.2 Opinión sobre las cuentas anuales .....  | 52        |
| <b>III. CONSIDERACIONES SOBRE LOS SISTEMAS DE CONTROL INTERNO<br/>Y PROCEDIMIENTOS DE GESTIÓN .....</b> | <b>54</b> |
| III.1 Presupuesto, contabilidad e ingresos .....  | 54        |
| III.2 Personal.....   | 54        |
| III.3 Contratación .....  | 54        |
| III.4 Transferencias y subvenciones .....   | 56        |
| III.5 Otros aspectos.....   | 56        |
| <b>IV. ANÁLISIS FINANCIERO .....</b>  | <b>57</b> |
| <b>V. CUENTAS ANUALES .....</b>   | <b>59</b> |
| V.1 Ayuntamiento.....   | 59        |
| V.2 Urduliz Urbanismo Sozietatea, SA.....   | 62        |
| <b>ANEXOS .....</b>   | <b>63</b> |
| A.1 Naturaleza del ente fiscalizado y legislación aplicable.....  | 63        |
| A.2 Presupuesto y sus modificaciones .....  | 63        |
| A.3 Impuestos, tasas y otros ingresos .....   | 64        |
| A.4 Ingresos por transferencias, subvenciones y otros ingresos.....                                     | 65        |
| A.5 Gastos de personal .....  | 67        |
| A.6 Gastos en bienes corrientes y servicios e inversiones .....   | 68        |
| A.7 Transferencias y subvenciones corrientes concedidas .....   | 69        |
| A.8 Deudores presupuestarios y tesorería.....   | 71        |
| A.9 Activo no corriente y patrimonio neto.....  | 72        |
| A.10 Urduliz Urbanismo Sozietatea, SA.....  | 73        |
| A.11 Análisis de contratación.....  | 75        |
| <b>ALEGACIONES .....</b>  | <b>77</b> |

Vitoria-Gasteiz, 2020ko urriaren 29a

Vitoria-Gasteiz, a 29 de octubre de 2020



Herri -Kontuen  
Euskal Epaitegia

Tribunal Vasco  
de Cuentas Públicas

## LABURTZAPENAK

|                |  |
|----------------|--|
| BEZ            | Balio Erantsiaren gaineko Zerga.                           |
| BFA            | Bizkaiko Foru Aldundia.                                    |
| EAE            | Euskal Autonomia Erkidegoa.                                |
| EIOZ           | Eraikuntza, Instalazio eta Obren gaineko Zerga.            |
| ESGAKO         | Esku-hartze Soziala eta Garapen Komunitarioa.              |
| GLL            | Gizarte Larrialdietarako Laguntzak.                        |
| HILBIZ         | Hiri izaerako Lursailen Balio Igoeraren gaineko Zerga.     |
| HKEE           | Herri-Kontuen Euskal Epaitegia.                            |
| JEZ            | Jarduera Ekonomikoen gaineko Zerga.                        |
| Lanbide        | Lanbide erakunde autonomoa-Enpleguaren Euskal Zerbitzua.   |
| LUO            | Lurraren Udal Ondarea.                                     |
| LZ             | Lanpostuen zerrenda.                                       |
| Mankomunitatea | Uribe Kosta Zerbitzuen Mankomunitatea.                     |
| OHZ            | Ondasun Higiezinaren gaineko Zerga.                        |
| Sozietatea     | Urduliz Urbanismo Sozietatea SA.                           |
| TAOAL          | 7/1985 Legea, Toki Araubidearen Oinarriak Arautzen dituen. |





## I. SARRERA

Herri-Kontuen Euskal Epaitegiak otsailaren 5eko 1/1988 Legeak eta Epaitegiaren Osoko bilkurak onetsitako Lan Programari jarraikiz, Urdulizko Udalaren 2018ko ekitaldiko Kontu Orokorraren fiskalizazio lana mamitu du.

Fiskalizazio-lan honek honako alderdi hauek besarkatzen ditu:

- Legezketasuna: aurrekontuaren honako atal hauetan ezargarria den arautegia bete izana: aurrekontua, zuzenbide publikoko sarrerak, zorpetzea eta finantza-eragiketak, langileria, obren kontratazioa, zerbitzuak eta hornidurak eta dirulaguntzen emakida. azterketa lan hau fiskalizazio-gai den ekitaldiari dagokio, beharrezko irizten diren beste ekitaldi batzuei buruzko egiaztatzeak egitea eragotzi gabe, fiskalizazio-gai den ekitaldian eragina dutelako.
- Kontabilitatea: Kontu Orokorra ezargarri zaizkion kontularitzako printzipioekin bat datorrela egiaztatzea. Kontu Orokorrak Udalaren eta Udal sozietatearen aurrekontuko balantzeak, ekonomia-ondarearen emaitzen kontuak, memoriak eta likidazioak besarkatzen ditu.
- Lanaren zabalak ez du gastuaren efikazia eta efizientziari buruzko azterlan berariazkorik besarkatu; ezta, kudeaketa-prozedurei buruzkorik ere. Nolanahi den ere, fiskalizazioan sortu diren alderdi partzialak txosten honen III. idazpuruan aztertu ditugu.
- Udalaren egoera ekonomikoaren finantza analisia.

Urdulizko udalerriak 4.313 biztanle zituen 2018ko urtarrilaren 1ean. Udalak 2002an Urduliz Urbanismo Sozietatea SA eratu zuen, aurrerantzean Sozietatea, oso-osorik udal jabetzakoa. Gainera, Udala Uribe Kostako Zerbitzuen Mankomunitatean dago integratua, zeinak gizarte ongizate, ingurumen eta hizkuntza normalizazioko eskumenak garatzen baititu, eta Bilbao Bizkaia Uren Partzuergoan, uraren hornidura kudeatu eta saneamendu zerbitzuak ematen baititu. Gainera, 2007an Udalak Uribe Kostako Behargintza SL sozietatearen akzioak erosi zituen (% 10,25); enplegua sustatzeko eskualdeko programak garatzen ditu.



Herri -Kontuen  
Euskal Epaitegia

Tribunal Vasco  
de Cuentas Públicas

## II. IRITZIA

### II.1 LEGEA BETETZEARI BURUZKO IRITZIA

#### KONTRATAZIOA

1. Udalak indarrean izan zituen 2018an zabor bilketa zerbitzuaren kontratuak eta bide garbiketakoak, ekitaldian hurrenez hurren 113.425 eta 145.597 euroren kostua eragin zutenak. Lehenengoak indarraldia 2017an amaitua zuen eta bigarrenean 15 urteko iraunaldia ezarri zen 2007an, zerbitzu kontratueterako aurreikusitako 4 urtekoaz gainetikoa. Udalak publikotasun eta lehia printzipioak urratu ditu, derrigorrezkoa baitzen Udalak lizitazio berri bat abiaraztea (ikus A.11).
2. Udalari aholkularitza administratiboa emateko zerbitzua 2 kontratutan zatikatu zen eta enpresa berari esleitu zitzaion 2018ko martxoan 3 urtetarako, guztira 102.669 euroan, eskaintzak eskatuta prozedura negoziatu bitartez; horrek publikotasun eta lehia printzipioak urratzen ditu (ikus A.11).

Epaitegi honen ustetan, aurreko paragrafoetan aipatutako ez-betetzeak alde batera, Urdulizko Udalaren Kontu Orokorra osatzen duten entitateek zuzentasunez bete dute 2018ko ekitaldian ekonomia-finantzaren jarduera arautzen duen lege arautegia.

### II.2 URTEKO KONTUEI BURUZKO IRITZIA

1. Hona hemen Udalaren 2018ko abenduaren 31ko Gastu Orokorretarako Diruzaintza Geldikinean eta Ondare Garbian eragina duten doiketak:

| KONTZEPTUA  | Euroak milakotan                             |              |             |              |
|---|--|--------------|-------------|--------------|
|   | AURREKONTUKO<br>DIRUZAIN<br>TZA<br>GELDIINAK | ONDAREKOA    |             |              |
|   |  | AKTIBOA      | PASIB.      | GARBIA       |
| A.3 2018ko erregistratu gabeko zerga-sarrerak OHZ, JEZ.....                             | 60   | 60           | -           | 60           |
| A.3 HILBIZen itzulketa erregistratu gabe.....   | (94)   | -            | 94          | (94)         |
| A.4 Udalkutxa 2018ko likidazioa.....  | 164  | 164          | -           | 164          |
| A.4 32. arearen birsaikapena: esleipenen eta hitzarmenetako sarreren aldeak.....        | (161)  | -            | 161         | (161)        |
| A.4 33. eta 41. areetan Udalak aurreratutako urbanizazio lanak.....                     | 1.718  | 1.718        | -           | 1.718        |
| A.10 Sozietateari gomendioak (Sta. Marina eta harrobi zaharra) eta zor saldoa.....      | (325)  | 60           | 385         | (325)        |
| <b>UDALA GUZTIRA</b>  | <b>1.362</b>                                 | <b>2.002</b> | <b>640</b>  | <b>1.362</b> |
| A.10 Etxebizitzaren sustapenen eroslearen errekamazioa: kalte-ordainak eta kostuak .... | -  | -            | (58)        | (58)         |
| <b>SOZIETATEA GUZTIRA</b>   | <b>-</b>                                     | <b>-</b>     | <b>(58)</b> | <b>(58)</b>  |

2. Udalak ez du bere Ibilgetuan eragina duten egitate ekonomiko guztien kontularitzako erregistroa bermatuko duen jarraipenik egiten, eta ikusi dugu kontularitzako saldoak ez datozela bat 2009an egindako ibilgetuko balorazioarekin eta elementu jakin batzuen kontularitzako erregistro ezarekin. Hori dela eta, ezin jakin dezakegu Aktibo ez arrunteko





saldoek, 98,2 milioi euro, aktiboaren 2018ko abenduaren 31ko egoera erreala islatzen duten (ikus A.9).

3. Sozietatearen Kontuek ez dute inbertsio konpromisoen berri ematen, 2018ko abenduaren 31n 5,3 milioi euro (ikus A.10).

Epaitegi honen iritzira, aurreko paragrafoetan adierazitako salbuespenak alde batera, Urdulizko Udalaren Kontu Orokorra osatzen duten entitateen kontuek alderdi esanguratsu guztietan 2018ko ekitaldiaren jarduera ekonomikoa eta 2018ko abenduaren 31ko ondarearen eta finantza egoeraren isla zuzena erakusten dute; baita, data horretan amaitutako urteko ekitaldiari dagozkion bere eragiketen eta eskudiruzko fluxuen emaitzena ere, ezargarria den finantza informazioaren arau-esparruaren arabera eta, zehazki, araudian jasotako kontularitzako printzipio eta irizpideen arabera.



Herri-Kontuen  
Euskal Epaitegia

Tribunal Vasco  
de Cuentas Públicas

### III. BARNE KONTROLEKO SISTEMEI ETA KUDEAKETA-PROZEDUREI BURUZKO IRIZPENAK

Atal honetan ekonomia-finantza jarduera arautzen duten printzipioak gehiegi eragiten ez dituzten akatsak ez ezik, kudeaketa hobetzeko azpimarratu nahi diren prozedurazko alderdiak ere jaso dira.

#### III.1 AURREKONTUA, KONTABILITATEA ETA DIRU-SARRERAK

- 2018ko ekitaldirako aurrekontua hasiera batean Udalbatzak 2018ko ekainaren 26an onetsi zuen; ordea, arautegiak urtea hasi aurretik behin betiko onestea aurreikusten du.
- Kredituak 2018ko aurrekontura txertatzeko espedientean 2016ko eta lehenagoko kredituak barne hartu ziren, 1,8 milioi euroren zenbatekoan; ordea, horiek ezin ziren hor jaso araudiak mugatu egiten dituelako txertaketa jarraituak.
- Finantzaketa atxikia duten gastuetarako geldikinaren osagai nagusia Lurraren Udal Ondaretik eskuratutako baliabideek osatzen dute, -11,5 milioi euro 2018ko abenduaren 31n-, ez baitute aurrez finkatutako epeetan inbertsio jakin batzuk egiteko eskatzen eta horrexegatik, komeni da saldo hau finantzaketako gainerako desbideratzeetatik bereiztea.
- Sozietateak ez du Oroitidazkian jasotzen, BEZagatiko kobratzeko konpentsatzeko saldoan 2010 eta lehenagoko ekitaldietan sortutako saldoak barne hartu direla eta zerga honen araudiak itzulketa eskatzeko aurreikusten duen epea gainditu da.

#### III.2 LANGILERIA

- Udalak 2018ko abenduan onartu zuen LZ berrian bi lanpostu berri jaso dira eta ordainsari osagarriak esleitu zaizkie, espedientean dagokion justifikazioa eman gabe.
- Udalak ez dizkio Foru Ogasunari aitortzen langileei ordaintzen dizkien gauzazko ordainsariak, batik bat bizitza aseguruak eta laguntza sozialak, 7.679 euro egin dutenak.
- 2018ko ordainsarien igoera onartu zuen Udalbatzaren erabakia argitara eman behar zatekeen.
- 2018ko abenduan Udalbatzak onartu zuen 2 funtzionariori 486 euroren hileroko osagarri pertsonal iragankor bat ordaintzea, kobrantza sortzeko beharrezko baldintzak betetzen zituztela egiaztatu gabe.
- 2018ko abenduaren 31n indarrean jarraitzen zuen 2002an formalizatutako laneko obra kontratu bat, hasiera batean 6 hilabeteko iraupena aurreikusi zela.



### III.3 KONTRATAZIOA

Fiskalizazio-gai izan den urtean indarrean zeuden 6 kontratu nagusiak aztertu ondoren -10,9 milioi euroren esleipenei dagozkienak- honako alderdi hauek azaleratu zaizkigu (ikus A.11):

- Guztira 386.037 euroan esleitutako 2 kontratutan (3 eta 4 espedienteak) ez zen osagarrien prezioa xehakatu eta ez dira langileen kostuak zehaztu (A1 akatsa).
- Guztira 9,1 milioi euroan esleitutako 3 kontratutan (2, 5 eta 6. espedienteak) esleipena 1 eta 11 hilabete bitartean atzeratu zen pleguen irekiera datatik 2 hilabeteko legezko epearen aldean (B1 akatsa).
- 9,7 milioi euroan esleitu/formalizatu ziren 4 kontraturi (1, 2, 5 eta 6 espedienteak) ez zitzaien nahitaezkoa den publikotasuna eman kontratatzailearen profilean. Gainera, 5 zk. espedienteen ez zen lizitazioa argitaratu zuten aldizkarien erreferentziarik eman (B2 akatsa).
- Eraikinak garbitzeko kontratua 4 urtetarako esleitu zen 1,1 milioi euroan eta prezioak berrikusteko klausulak 12 hilabete igaro ostean gaurkotzea aurreikusten du; araudiak, berriz, 2 urteko epean gaurkotzea eskatzen du. Gainera, kontratuaren formulak ez ditu kostuaren osagaiak xehakatzen (C akatsa).
- 2016ko uztailean 2,6 milioi euroren zenbatekoan gimnasioa eta 4 padel-pista eraikitzeko kontratua gauzatzean atzerapenak izan ziren eta obraren hasiera 2017ko urtarrilera arte atzeratu zen. Halaber, 7 hilabeteen betetzeko epea ere gainditu zen eta azken ziurtagiria 2018ko abenduan onartu zen. Gainera, kontratua % 11 aldatu zen (aldaketa eta kontratu txikia) harmailetako gabeziak konpontzeko, zeinaren azpian egokitu baitzen gimnasioa; egokiagoa zatekeen egoera hori hasierako proiektuan jasotzea (C akatsa).
- Udalbatzak 2016an onartu zuen Sozietateak aparkalekua kudeatzea eta orduan erabaki behar zukeen, berebat, obra egikaritzeko Udalak okupatutako lursaila Sozietateari atxikitzea edo lagatzea, 5,4 milioi euroan esleitu zena (C akatsa).

#### Alderdi orokorrak

- 3 kontratutan proportzionaltasun sinpleko formula bat baliatu zen, zeinak murriztu egiten baitzuen faktore ekonomikoaren egiazko balioa, lizitazio prezioa berdintzen zuten eskaintzei puntuak emanez (1etik 3rako espedienteak). 6. espedienteen faktore ekonomikoak 40 puntuko balio nominala zuen arren, baliatutako formulak 8 puntutara mugatu zuen onartutako gutun-azalen arteko aldea.
- Udalak ez ditu udal kudeatzaileen eta zerbitzu-kontratuen esleipendun diren enpresetako langileen arteko harremana argitzeko eskatutako jarraibideak ebatzi, lan harreman baten aitortza eragin zezaketen ekintzak erabakigarri izatea saihestearren.



### Beste eskurapen eta erosketa txiki batzuk

- Eraikinak garbitzeko zerbitzu kontratuaren indarraldia 2016ko azaroan amaitu eta 2018ko ekainaren 1 arte egikaritzen jarraitu zuen atzerapenak izan zirelako beste kontratu baten lizitazioan, 2016ko azaroan abiarazi zelarik izapidetzen; urte horretan 103.027 euroren kostua eragin zuen.

### III.4 TRANSFERENTZIAK ETA DIRULAGUNTZAK

- Udalbatzak Mankomunitatearen Estatutuak onartu zituenean erabaki zuen udal zerbitzu sozialak eta zabor bilketa mankomunatzea. Alabaina, entitate honek beste zerbitzu osagarri batzuk ere ematen ditu (hizkuntza normalizazioa, ingurumena eta kontsumitzailearen bulegoa), 2018ko ekarpenaren % 33 egiten zutenak, 235.491 euro, eta zerbitzua mankomunatzeko edo kudeaketa-mandatuak izapidetzeko Udalbatzaren erabakiak beharrezko dituztenak.
- Uribe Kostako Behargintza SL sozietateak enplegua sustatzeko egitekoak garatzen ditu udalerrian eta eskualdean, eskumen horren kudeaketa sozietateari esleituko dion Udalbatzaren erabakirik izan gabe.
- Lanbidek Udalarari 25.492 euroren laguntzak eman zizkion langileen kontratazioetarako; laguntza horiek aurrekontuz kanpo erregistratu ziren jarduera Uribe Kostako Behargintza SLk gauzatzen zuelako. Diru-sarrera aurrekontuan aitortu behar zatekeen eta sozietate honi egindako mandatua formalizatu.
- Udalak ez du Dirulaguntzen Plan Estrategiko nahitaezkoa onartu.
- Udalak ez zien publikotasunik eman dirulaguntzen emakiden erabakiari eta ebazpenei.
- Bi dirulaguntza izendun nagusiak aztertu ditugu -22.180 euro 2 kirol entitateri- eta ikusi da ez dagoela hitzarmen edo ebazpenik gauzatuko den jarduera, beste diru-sarrera batzuekiko bateragarritasuna eta ordainketa epeak eta justifikazioa zehaztasunez jasoko dituenik. Berebat, espedienteetan ere ez dira jaso zerga eta Gizarte Segurantzarekiko obligazioetan egunean daudelako ziurtagiriak.

### III.5 BESTE ALDERDI BATZUK

- Toki erakundeak gardentasun eta informazio publikorako irispidea izateari buruzko araudira egokitzeko prozesua 2015eko abenduan amaitu behar zatekeen. Informazio ekonomikoari dagokionez, ez dira udalaren webgunean barne hartzen urteko kontuak eta 2018ko Aurrekontuan diru-izendapenen informazioa kapituluka ematen da. Berebat, kontratazioari eta tokiko ordezkarien ondasun eta jarduerari buruzko estatistikako datuak ere ez dira barne hartzen. Aurrekontuaren egonkortasun helburuak bete izanari buruzko eta dirulaguntzei buruzko informazioa ere gaurkotu gabe zegoen eta, hurrenez hurren, 2014 eta 2017ko datuak jaso ziren.

Sozietateak, berriz, soilik aparkalekuaren kontratazioaren berri ematen du, gainerako kontratuak zehaztu gabe, eta ez Urteko Kontuei buruzko informaziorik, ez antolakuntzari buruzkorik eman gabe.



#### IV. FINANTZAREN ANALISIA

Udalak azken ekitaldietan likidatutako magnitude nagusien bilakaera ondoko taulan dago zehaztua.

| FINANTZAREN ANALISIA  | Euroak milakotan |               |               | Euroak biztanleko |              |              |
|---|------------------|---------------|---------------|-------------------|--------------|--------------|
|   | Urtea            |               |               | Urtea             |              |              |
|   | 2016(*)          | 2017(*)       | 2018          | 2016(*)           | 2017(*)      | 2018         |
| Zerga zuzenak, zeharkakoak eta tasak (1, 2 eta 3 kap.)..... | 2.011            | 2.841         | 2.752         | 485               | 669          | 637          |
| Transferentzia eta dirulaguntza arruntak (4. kap.).....     | 2.561            | 2.412         | 2.746         | 618               | 568          | 636          |
| Ondare sarrerak (5. kap.).....                              | 103              | 30            | 20            | 25                | 7            | 5            |
| <b>A. Diru-sarrera arruntak</b> .....                       | <b>4.675</b>     | <b>5.283</b>  | <b>5.518</b>  | <b>1.128</b>      | <b>1.244</b> | <b>1.278</b> |
| Langile-gastuak (1. kap.).....                              | 1.050            | 936           | 965           | 253               | 220          | 224          |
| Ondasun arrunten erosketak eta zerbitzuak (2. kap.).....    | 2.038            | 2.204         | 2.411         | 492               | 519          | 558          |
| Transferentzia eta dirulaguntza arruntak (4. kap.).....     | 689              | 632           | 503           | 166               | 149          | 116          |
| <b>B. Funtzionamendu gastuak</b> .....                      | <b>3.777</b>     | <b>3.772</b>  | <b>3.879</b>  | <b>911</b>        | <b>888</b>   | <b>898</b>   |
| <b>Aurrezki gordina (A-B)</b> .....                         | <b>898</b>       | <b>1.511</b>  | <b>1.639</b>  | <b>217</b>        | <b>356</b>   | <b>380</b>   |
| - Finantza gastuak (3. kap.).....                           | -                | -             | -             | -                 | -            | -            |
| <b>Emaitza arrunta</b> .....                                | <b>898</b>       | <b>1.511</b>  | <b>1.639</b>  | <b>217</b>        | <b>356</b>   | <b>380</b>   |
| - Maileguen amortizazioa (9. kap.).....                     | -                | -             | -             | -                 | -            | -            |
| <b>Aurrezki garbia</b> .....                                | <b>898</b>       | <b>1.511</b>  | <b>1.639</b>  | <b>217</b>        | <b>356</b>   | <b>380</b>   |
| Inbertsioen besterentzea (6. kap.).....                     | 963              | 5.125         | 2.354         | 232               | 1.206        | 544          |
| Jasotako kapitaleko dirulaguntzak (7. kap.).....            | 81               | 63            | 126           | 19                | 15           | 29           |
| - Inbertsio errealek (6. kap.).....                         | (1.079)          | (3.105)       | (1.522)       | (260)             | (731)        | (352)        |
| - Emandako kapitaleko dirulaguntzak (7. kap.).....          | -                | (3)           | -             | -                 | (1)          | -            |
| <b>Kapitalezko eragiketen emaitza</b> .....                 | <b>(35)</b>      | <b>2.080</b>  | <b>958</b>    | <b>(9)</b>        | <b>489</b>   | <b>221</b>   |
| Eragik. ez finantzarioaren emaitza (1etik 7rako kap.)...    | 863              | 3.591         | 2.597         | 208               | 845          | 601          |
| <b>Diruzaintza-geldikin likidoa</b> .....                   | <b>23.330</b>    | <b>20.880</b> | <b>23.450</b> | <b>5.627</b>      | <b>4.915</b> | <b>5.429</b> |
| <b>Gastu orokorretarako diruzaintza geldikina</b> .....     | <b>23.327</b>    | <b>10.643</b> | <b>11.911</b> | <b>5.626</b>      | <b>2.505</b> | <b>2.758</b> |
| <b>Zorpetzea 12.31n</b> .....                               | <b>-</b>         | <b>-</b>      | <b>-</b>      | <b>-</b>          | <b>-</b>     | <b>-</b>     |

(\*) HKEEK fiskalizatu gabeko datuak.

**Sarrera arruntak:** % 18 egin dute gora 2016ko urtearekiko.

- **Zerga zuzenak, zeharkakoak eta tasak:** % 36,8 egin dute gora eta azpimarratzekoak dira EIOZan izan diren sustapen berrien eta obra lizentzia eta bide publikoa okupatzeagatiko tasen eragina; baita, OHZak izan duen igoera 2017an katastro balio berriak aplikatu izanaren ondorioz.
- **Transferentziak eta dirulaguntzak:** % 7,2 egin dute gora 2016-2018ko aldian, osagai nagusi den Udalkutxak gora egin duelako.



**Funtzionamendu-gastuak:** % 2,7 egin dute gora 2016 eta 2018 bitartean, honako xehakapenarekin:

- **Langile gastuek** % 8,1 egin zuten behera 2018 eta 2016 bitartean, langileen erretiroagatik eta aldi bateko kontratazio gutxiago gauzatu izateagatik.
- **Ondasun arrunten eta zerbitzuen erosketak** % 18,3 igo ziren 2016ko aldean eta azpimarratzekoak dira horniduretan (energia elektrikoa eta beste) eta enpresek egindako lanetan izandako igoerak.
- **Transferentzia eta dirulaguntzek** % 27 egin zuten behera, transferentziak (Sozietatea, Mankomunitatea eta Uribe Kostako Behargintza SL) eta irabazi asmorik gabeko entitateei emandako dirulaguntzak murriztu zirelako.

**Aurrezki gordina:** erakundearen autofinantzaketa maila neurtzen duen aldaki honek 2016an sarrera arrunten % 19,2 zen eta onera egin du hirurtekoan; honenbestez, Udalak 2018an sarrera arrunten % 29,7 izan zuen inbertsioak finantzatzeko.

**Kapital eragiketen emaitza:** aldi honetan egindako inbertsioak, 5,7 milioi euro, sarrera arrunten % 36,9 izan dira. Hirigintzako dirusarrerekin eta aktiboen salmentekin finantzatu dira, hirurtekoan 8,6 milioi euro egin dutelarik, inbertsioei gaina hartuz.

**Diruzaintza geldikina:** Geldikin likidoa ez da aztertutako aldi aldutzen, nahiz 2017 eta 2018ko eragiketa ez-finantzarioen emaitza (1etik 7ra bitarteko kapituluak) positiboa izan zen 6,2 milioi euroan, Sozietatearen kapitala 6 milioi euroan handitzeagatik. Gastu orokorretarako Geldikinari dagokionez, 2016an ez ziren Lurraren Udal Ondarearen baliabideengatik desbideratzeak kendu.

**Ondorioa:** aztertutako aldi sarrera arruntek izan duten hobekuntzak eta funtzionamendu gastuen igoera mugatuak hobetu egin du eragiketa arruntek sortutako aurrezki maila. 2018ko abenduaren 31n Diruzaintza likidoak laukoiztu egin ditu hirurteko inbertsioak. Gastu orokorretarako geldikina dela eta, aintzat hartu behar da kalkulua egiteko murriztu egiten direla Lurraren Udal Ondarearen diru-sarrerek eragindako finantzaketako desbideratzeak, zeinak udal inbertsio mota zabaletarako balia daitezkeen.

**Aurrekontuaren egonkortasuna:** Udalaren Kontu-hartzailtza atalak egindako txostenak egiaztatu du aurrekontuaren egonkortasunaren araua bete dela, eragiketa ez finantzarioetan superabita izan duelako eta gastu zenbagarriek behera egin dutelako 2017koen aldean. Udalak ez du zorrik.



Herri -Kontuen  
Euskal Epaitegia

Tribunal Vasco  
de Cuentas Públicas

## V. URTEKO KONTUAK

### V.1 UDALA

#### 2018KO EKITALDIKO AURREKONTUAREN LIKIDAZIOA

Euroak milakotan

| SARRERAK                                  | ERANSK. | AURREKONTUA   |              |               | ESKUBIDE<br>KITAT. | KOBRA.<br>KOBRA. | KOBRA.<br>GABEA | %<br>EXEK(*) |
|---|---------|---------------|--------------|---------------|--------------------|------------------|-----------------|--------------|
|   |         | HASIER.       | ALDAK.       | B.BETIK.      |                    |                  |                 |              |
| 1. Zerga zuzenak .....                    | A.3     | 1.168         | -            | 1.168         | 1.156              | 1.085            | 71              | 99           |
| 2. Zeharkako zergak .....                 | A.3     | 250           | -            | 250           | 867                | 863              | 4               | 347          |
| 3. Tasak eta bestelako sarrerak .....     | A.3     | 468           | -            | 468           | 729                | 672              | 57              | 156          |
| 4. Transferentzia arruntak .....          | A.4     | 2.727         | -            | 2.727         | 2.746              | 2.735            | 11              | 101          |
| 5. Ondare-sarrerak.....                   | -       | 12            | -            | 12            | 20                 | 20               | -               | 167          |
| 6. Inbertsio errealeen besterentzea ..... | A.4     | 5.810         | 5            | 5.815         | 2.354              | 2.338            | 16              | 40           |
| 7. Kapital transferentziak .....          | A.4     | 80            | 1            | 81            | 126                | 48               | 78              | 156          |
| 8. Aktibo finantzarioak .....             | -       | -             | 4.974        | 4.974         | -                  | -                | -               | E/E          |
| <b>SARRERAK GUZTIRA</b>                   |         | <b>10.515</b> | <b>4.980</b> | <b>15.495</b> | <b>7.998</b>       | <b>7.761</b>     | <b>237</b>      | <b>76</b>    |

(\*) Exekuzioaren % kalkulaturakoan Diruzaintza-geldikina txertatzearen eragina zuzendu da.

Euroak milakotan

| GASTUAK  | ERANSK. | AURREKONTUA   |              |               | OBLIG.<br>AITORT. | ORDAINK.<br>ORDAIN. | ORDAIN.<br>GABE | %<br>EXEK. |
|--|---------|---------------|--------------|---------------|-------------------|---------------------|-----------------|------------|
|  |         | HASIER.       | ALDAK.       | B.BETIK.      |                   |                     |                 |            |
| 1. Langileria-gastuak.....                     | A.5     | 1.119         | -            | 1.119         | 965               | 942                 | 23              | 86         |
| 2. Ondasun arrunt eta zerbitzuen kontrat. .... | A.6     | 2.556         | 128          | 2.684         | 2.411             | 2.197               | 214             | 90         |
| 3. Gastu finantzarioak.....                    | -       | 1             | -            | 1             | -                 | -                   | -               | E/E        |
| 4. Transferentzia arruntak.....                | A.7     | 545           | -            | 545           | 503               | 456                 | 47              | 92         |
| 5. Kreditu glob. eta ustekabekoak.....         | -       | 120           | (119)        | 1             | -                 | -                   | -               | E/E        |
| 6. Inbertsio errealak .....                    | A.6     | 6.136         | 4.971        | 11.107        | 1.522             | 1.473               | 49              | 14         |
| <b>GASTUAK GUZTIRA</b>                         |         | <b>10.477</b> | <b>4.980</b> | <b>15.457</b> | <b>5.401</b>      | <b>5.068</b>        | <b>333</b>      | <b>35</b>  |
| <b>SARRERAK - GASTUAK</b>                      |         |               |              |               | <b>2.597</b>      |                     |                 |            |

#### AURREKONTU ITXIEN BARIAZIOA

Euroak milakotan

|                                  | ERANSK. | HASIER. | KOBRA./     |         | AZKEN |
|----------------------------------|---------|---------|-------------|---------|-------|
|                                  |         | ZORRA   | BALIOG.     | ORDAIN. |       |
| Zordunak .....                   | A.8     | 906     | (49)        | (566)   | 291   |
| Hartzekodunak .....              |         | 550     | -           | (550)   | -     |
| <b>AURREKONTU ITXIEN EMAITZA</b> |         |         | <b>(49)</b> |         |       |



Herri - Kontuen  
Euskal Epaitegia

Tribunal Vasco  
de Cuentas Públicas

| AURREKONTUAREN EMAITZA   | Euroak milakotan |
|--|------------------|
| Eskubide kitatuak.....   | 7.998            |
| Obligazio aitortuak.....   | (5.401)          |
| <b>INDARREKO AURREKONTUKO ERAGIKETEN EMAITZA</b>                       | <b>2.597</b>     |
| <b>AURREKO EKITALDIETAN KITATUTAKO AURREKONTUKO ERAGIKETEN EMAITZA</b> | <b>(*) (1)</b>   |
| <b>EKITALDIAREN AURREKONTU EMAITZA</b>                                 | <b>2.596</b>     |
| Finantzaketako desbideratzeak.....                                     | (1.197)          |
| Diruzaintza geldikinarekin finantzatutako gastuak.....                 | 158              |
| <b>AURREKONTUAREN EMAITZA DOITUA</b>                                   | <b>1.557</b>     |

(\*) Udalak aintzat hartu ditu indargabetzeak, ez, ordea, 47.698 euroren ezerezteak.

| DIRUZAINZAKO GELDIKINA  | Euroak milakotan |
|---|------------------|
| Diruzaintzako funts likidoak .....(A.8)                                 | 23.630           |
| Sarreraren aurrekontuaren zordunak.....(A.8)                            | 528              |
| Aurrekontuz kanpoko zordunak.....                                       | 15               |
| Gastu aurrekontuaren hartzekodunak.....                                 | (333)            |
| Aurrekontuz kanpoko hartzekodunak.....                                  | (131)            |
| Aplikatzeko dauden partidak.....  | 2                |
| <b>AURREKONTU KORRONTEKO DIRUZAINZAKO GELDIKIN GORDINA</b>              | <b>23.711</b>    |
| Zalantzako kobragarritasuneko saldoak.....(A.8)                         | (260)            |
| <b>AURREKONTU KORRONTEKO DIRUZAINZAKO GELDIKIN LIKIDOA</b>              | <b>23.451</b>    |
| Finantzaketa atxikia duten gastuetarako Diruzaintza-geldikina.....(A.4) | (11.540)         |
| <b>GASTU OROKORRETARAKO DIRUZAINZAKO GELDIKINA 18.12.31-N</b>           | <b>11.911</b>    |
| <b>ZORPETZEA 2018/12/31N</b>  | <b>-</b>         |

| KONPROMISO-KREDITUAK        | Euroak milakotan |           |               |            |
|-----------------------------|------------------|-----------|---------------|------------|
|                             | Hasier. aurrek.  | Alda-keta | Azken aurrek. | Hitzar-tua |
| Azpiestazio elektrikoa..... | 1.027            | -         | 1.027         | -          |
| <b>Guztira</b>              |                  |           | <b>1.027</b>  |            |





Herri -Kontuen  
Euskal Epaitegia

Tribunal Vasco  
de Cuentas Públicas

**BALANTZEAK 2018 ETA 2017KO ABENDUAREN 31N**

Euroak milakotan

| AKTIBOA                                | ERANSK.    | 2018           | 2017           | ONDARE GARBIA ETA PASIBOA                   | ERANSK. | 2018           | 2017           |
|--|------------|----------------|----------------|---|---------|----------------|----------------|
| <b>AKTIBO EZ ARRUNTA</b>               | <b>A.9</b> | <b>98.209</b>  | <b>93.106</b>  | <b>ONDARE GARBIA</b>                        |         | <b>121.647</b> | <b>113.931</b> |
| Ibilgetu ukiezina.....                 |            | 86             | 124            | Ondarea .....                               |         | 106.138        | 106.138        |
| Ibilgetu materiala .....               |            | 92.050         | 86.909         | Aurreko ekitaldietako emaitza.....          |         | 12.045         | 2.677          |
| Finantza inbertsioak epe luzera .....  | A.9        | 6.073          | 6.073          | Ekitaldiaren emaitza.....                   |         | 3.186          | 4.983          |
|  |            |                |                | Emaitzara egotzi gabeko dirulaguntzak...    |         | 278            | 133            |
| <b>AKTIBO ARRUNTA</b>                  |            | <b>23.914</b>  | <b>21.883</b>  | <b>PASIBO KORRONTEA</b>                     |         | <b>476</b>     | <b>1.058</b>   |
| Zordunak eta kobratz. beste knt. b. .. |            | 269            | 676            | Epe motzeko zorrak .....                    |         | 126            | 332            |
| Finantza inbertsioak epe luzera .....  |            | 15             | 23             | Taldeko entitateekiko zorrak .....          |         | -              | 3              |
| Eskudirua eta aktibo baliokideak.....  | A.8        | 23.630         | 21.184         | Hartzek. eta ordaintz. bst kontu batz. .... |         | 350            | 723            |
| <b>AKTIBOA, GUZTIRA</b>                |            | <b>122.123</b> | <b>114.989</b> | <b>ONDARE GARBIA ETA PASIBOA, GUZTIRA</b>   |         | <b>122.123</b> | <b>114.989</b> |

**EKONOMIA ETA ONDAREAREN EMAITZAREN KONTUA, 2018 eta 2017KO EKITALDIETAKOA**

Euroak milakotan

|   | 2018           | 2017           |
|---|----------------|----------------|
| Zerga eta hirigintzako diru-sarrerak.....   | 5.052          | 2.996          |
| Jasotako transferentziak eta dirulaguntzak.....   | 2.727          | 2.409          |
| Kudeaketa arrunteko beste sarrera b.....  | 43             | 54             |
| <b>KUDEAKETA ARRUNTEKO SARRERAK GUZTIRA</b>   | <b>7.822</b>   | <b>5.459</b>   |
| Langileria-gastuak.....   | (1.026)        | (1.001)        |
| Transferentziak eta emandako dirulaguntzak .....  | (503)          | (635)          |
| Hornikuntzak .....  | -              | -              |
| Kudeaketa arrunteko beste gastu b. ....   | (2.304)        | (2.167)        |
| Ibilgetua amortizatzea.....   | (808)          | (802)          |
| <b>KUDEAKETA ARRUNTEKO GASTUAK GUZTIRA</b>  | <b>(4.641)</b> | <b>(4.605)</b> |
| <b>KUDEAKETA ARRUNTAREN EMAITZA (AURREZKIA EDO AURREZKI-EZA)</b>                                | <b>3.181</b>   | <b>854</b>     |
| Balioaren narriadura eta ibilgetua besterenganatzearen emaitzak eta salgai diren aktiboak ..... | -              | 3.966          |
| Arruntak ez diren beste partida batzuk .....  | 9              | 12             |
| <b>ERAGIKETA EZ FINANTZARIOEN EMAITZAK</b>  | <b>3.190</b>   | <b>4.832</b>   |
| Sarrera finantzarioak.....  | 20             | 30             |
| Gastu finantzarioak.....  | -              | -              |
| Balioaren narriadura, bajak eta finantza-aktibo eta -pasiboen besterentzeak .....               | (24)           | 121            |
| <b>ERAGIKETA FINANTZARIOEN EMAITZAK</b>   | <b>(4)</b>     | <b>151</b>     |
| <b>EKITALDIAREN EMAITZA GARBIA (AURREZKIA EDO AURREZKI-EZA)</b>                                 | <b>3.186</b>   | <b>4.983</b>   |



Herri -Kontuen  
Euskal Epaitegia

Tribunal Vasco  
de Cuentas Públicas

## V.2 URDULIZ URBANISMO SOZIETATEA SA

EGOERAREN BALANTZEAK 2018 ETA 2017KO ABENDUAREN 31N

Euroak milakotan

| AKTIBOA                               | ERANSK. | 2018         | 2017         | ONDARE GARBIA ETA PASIBOA                 | ERANSK. | 2018         | 2017         |
|---------------------------------------|---------|--------------|--------------|---|---------|--------------|--------------|
| Ibilgetu materiala .....              |         | 1            | 2            | Kapital Soziala .....                     |         | 6.072        | 6.072        |
| Ibilgetuko inbertsioak.....           | A.10    | 107          | 111          | Erreserbak.....                           |         | 12           | 12           |
| Finantza inbertsioak epe luzera ..... | A.10    | 6.500        | 6.500        | Aurreko ekitaldietako emaitzak.....       |         | 2.416        | 2.418        |
| Geroratutako zergagatiko aktiboak     |         | 6            | 6            | Ekitaldiaren emaitza.....                 |         | (5)          | (2)          |
|                                       |         |              |              | <b>PASIBO EZ-ARRUNTA</b>                  |         | <b>1</b>     | <b>1</b>     |
|                                       |         |              |              | Epe luzeko zorrak .....                   |         | 1            | 1            |
| <b>AKTIBO ARRUNTA</b>                 |         | <b>2.031</b> | <b>1.950</b> | <b>PASIBO ARRUNTA</b>                     |         | <b>149</b>   | <b>68</b>    |
| Izakinak .....                        | A.10    | 1.551        | 1.441        | Taldeko entitateekiko zorrak .....        | A.10    | 60           | 60           |
| Zord. eta kobr. bst knt b. ....       |         | 264          | 246          | Hartzed. eta ordain. bst knt b. ....      |         | 89           | 8            |
| Eskudirua eta aktibo baliokideak .... | A.10    | 216          | 263          |   |         |              |              |
| <b>AKTIBOA, GUZTIRA</b>               |         | <b>8.645</b> | <b>8.569</b> | <b>ONDARE GARBIA ETA PASIBOA, GUZTIRA</b> |         | <b>8.645</b> | <b>8.569</b> |

EKONOMIA ETA ONDAREAREN EMAITZAREN KONTUA, 2018 eta 2017KO EKITALDIETAKOA

Euroak milakotan

|   | ERANSK. | 2018        | 2017       |
|---|---------|-------------|------------|
| Negozio zifraren zenbateko garbia.....                            |         | -           | 4          |
| Amaitutako produktuen izakinen bariazioa .....                    | A.10    | 108         | (14)       |
| Hornidurak .....  | A.10    | (67)        | 1          |
| Ustiapeneko bestelako sarrerak.....                               | A.10    | 30          | 93         |
| Langileria-gastuak .....  | A.10    | (35)        | (38)       |
| Ustiapeneko beste gastu batzuk.....                               | A.10    | (45)        | (46)       |
| Ibilgetua amortizatzea.....                                       |         | (5)         | (5)        |
| <b>USTIAPENAREN EMAITZA</b>                                       |         | <b>(14)</b> | <b>(5)</b> |
| Sarrera finantzarioak.....  |         | -           | 1          |
| Finantza baliabideetan arazoizko balioaren bariazioa .....        | A.10    | 9           | 2          |
| <b>EMAITZA FINANTZARIOA</b>                                       |         | <b>9</b>    | <b>3</b>   |
| <b>EMAITZA ZERGA AURRETIK</b>                                     |         | <b>(5)</b>  | <b>(2)</b> |
| <b>ERAGIKETA JARRAITUETATIK ERATORRITAKO EKITALDIAREN EMAITZA</b> |         | <b>(5)</b>  | <b>(2)</b> |
| <b>EKITALDIAREN EMAITZA</b>                                       |         | <b>(5)</b>  | <b>(2)</b> |

## ERANSKINAK

### A.1 FISKALIZAZIO-GAI DEN ERAKUNDEAREN IZAERA ETA EZARGARRIA ZAION LEGERIA

Urdulizko Udala toki erakundea da, Toki Araubidearen Oinarriak Arautzeari buruzko Legeak arautzen duena, 57/2003 Legeak, Toki administrazioa eraberritzeko neurriei buruzkoak eta 27/2013 Legeak, Toki Administrazioaren Arrazionalizazio eta Iraunkortasun neurriei buruzkoak aldarazitakoa; baita 2/2016 Legeak ere, Euskadiko Toki Erakundeei buruzkoak.

Aurreko arategiak udalek dituzten eskumen edo ematen dituzten zerbitzu publikoak definitzen ditu, besteak beste: segurtasuna, garbiketa zerbitzua, suteak itzaltzea, ura hornitzea, saneamendu sarea, argiteria publikoa, hirigintzako diziplina, kultur eta kirol jarduerak, e.a.

Ekitaldian ezargarrria den aurrekontuko eta kontularitzako araudi nagusia 10/2003 Foru Arauak jasotzen du, Gipuzkoako Lurralde Historikoaren Toki Entitateen Aurrekontuei buruzkoak, eta 139/2015 Foru Dekretuak, Bizkaiko toki entitateen kontularitzako araudi-esparrua onartzen duenak.

### A.2 AURREKONTUA ETA ALDAKETAK

2018ko ekitaldirako Aurrekontu Orokorra 2018ko ekainaren 26ko Osoko bilkurak onetsi zuen hasiera batean eta Bizkaiko Aldizkari Ofizialean 2018ko abuztuaren 7an eman zen argitara, behin betiko onartua.

Hona hemen, 2018ko aurrekontu-aldaketak kapituluka xehakaturik:

| KAPITULUAK                                       | Kredituen txertaketa | Kreditu gehigarria | Kredituen gaikuntza | Euroak milakotan |              |              |
|--|----------------------|--------------------|---------------------|------------------|--------------|--------------|
|  |                      |                    |                     | Transferentziak  |              | GUZTIRA      |
|  |                      |                    |                     | +                | -            |              |
| 6. Inbertsio errealeen besterentzea.....         | -                    | -                  | 6                   | -                | -            | 6            |
| 7. Kapital transferentziak.....                  | -                    | -                  | 1                   | -                | -            | 1            |
| 8. Aktibo finantzarioen barioa: Geldikina .....  | 4.887                | 86                 | -                   | -                | -            | 4.973        |
| <b>SARRERAK GUZTIRA</b>                          | <b>4.887</b>         | <b>86</b>          | <b>7</b>            | <b>-</b>         | <b>-</b>     | <b>4.980</b> |
| 2. Ondasun arrunt eta zerbitzuetan gastuak ..... | 64                   | -                  | -                   | 64               | -            | 128          |
| 5. Kreditu glob. eta bestel. ustekabeak.....     | -                    | -                  | -                   | -                | (119)        | (119)        |
| 6. Inbertsio errealak.....                       | 4.823                | 86                 | 7                   | 55               | -            | 4.971        |
| <b>GASTUAK GUZTIRA</b>                           | <b>4.887</b>         | <b>86</b>          | <b>7</b>            | <b>119</b>       | <b>(119)</b> | <b>4.980</b> |

Alkatetza-dekretu bidez onartutako 17 aldaketa-espeditentek gastuen hasierako aurrekontua % 48 gehitu dute.

Udalaren Aurrekontuaren likidazioa Alkatetzaren dekretu bidez onartu zen, 2018ko otsailaren 21ean. Kontu Orokorra 2019ko uztailaren 23an onartu zuen Udaltzatzen.

### A.3 ZERGA, TASAK ETA BESTELAKO SARRERAK

Hona hemen Likidazioaren lehenengo 3 kapituluaren sarrerak zehaztuta:

|  | Euroak milakotan |
|--|------------------|
| <b>KONTZEPTUA</b>  | <b>Sarrera</b>   |
| Ondasun Higiezinaren Zerga (BFAk kudeatua) .....   | 725              |
| Trakzio mekanikodun Ibilgailuen gaineko zerga.....   | 278              |
| Jarduera Ekonomikoen gaineko Zerga (BFAk kudeatua) .....                                     | 58               |
| Hiri izaerako lursailen balioaren gaineko zergaren igoera.....                               | 95               |
| <b>ZERGA ZUZENAK GUZTIRA</b>   | <b>1.156</b>     |
| Eraikuntza, instalakuntza eta obren gaineko zerga .....                                      | 867              |
| <b>ZEHARKAKO ZERGA GUZTIRA</b>   | <b>867</b>       |
| Zabor-bilketa.....   | 248              |
| Estolderia .....   | 35               |
| Kultura zerbitzuak .....   | 58               |
| Hirigintzako, establezimenduak irekitzeko eta lehenengo okupazioko lizentziak .....          | 96               |
| Jabetza publikoa okupatzeagatiko tasa (ibiak, aldamiok, hesiak etab.) .....                  | 170              |
| Gas eta elektriz. enpresa hornitzaileek lurzoru, zorupe eta lur-gainaren erabilera prib..... | 49               |
| Operadore telefonikoen konpentsazioa .....   | 21               |
| Premiamendu eta berandutza interesen errekarquak .....                                       | 7                |
| Bestelako sarrerak eta tasa txikiagoak.....  | 45               |
| <b>TASAK ETA BESTELAKO SARRERAK GUZTIRA</b>  | <b>729</b>       |
| <b>1, 2 eta 3 KAPITULUAK GUZTIRA</b>   | <b>2.752</b>     |

Udalak ez zuen kutxa irizpidea aplikatu OHZaren eta JEZaren sarrerak erregistratzean; ezta zabor-bilketen tasarenak erregistratzean ere:

- BFAk OHZ eta JEZ kudeatu eta kobratzen du, konturako entregak eta urteko likidazioak eginez; Udalak BFAtik jasotako kopuruak erregistratzen ditu. Bi zergen kontzeptuko kobratzeko zeuden ordainagiriek 177.252 euro egin zuten; 2018koak 60.856 euro dira.
- Zaborrak biltzeko tasa hiruhilean behin zorpetzen da eta Bilbao-Bizkaia Ur Partzuergoak biltzen du, Udalari erregistratzeko hiruhileko likidazioak igortzen dizkiola. Horren ondorioz, 2018ko lehenengo seihilekotik kobratu gabeko likidazioak eta 2018ko 2. seihileko kobrantzarako erroldak, guztira 130.883 eurorenak, ez ziren diru-sarrera modura aitortu urte horretan.

Atzerapenak izan ziren HILBIZaren likidazioan, eta Udalari 2018ko abenduaren 31 baino lehenago jakinarazitako eskualdaketak zeuden, 2019an kitatu zirenak 51.030 euroren zenbatekoan. Udalak 2015ean zerga honen kontzeptuarekin gauzatutako 94.508 euroren likidazioak 2019ko apirilean itzuli zituen, izan ere Euskadiko Justizia Auzitegi Nagusiak ez zuen tramitatzeko onartu 2018ko azaroan Udalak zergadunaren aldeko epai baten aurka jarritako errekurtsu bat.

Udalak 2011n Bilbao-Bizkaia Uren Partzuergoari ur-horniduraren kudeaketa osoa laga zion eta Udalak Partzuergoko eskualdeko kolektoreekin bat egiten duen estolderia-sareari eutsi zion. Partzuergoarekin izenpetutako hitzarmenak, 2024 arteko indarraldia duenak,



Herri - Kontuen  
Euskal Epaitegia

Tribunal Vasco  
de Cuentas Públicas

aurreikusten zuen Partzuergoak zerbitzuaren udal tasa jasoko zuela eta Udalak bigarren mailako sarean hobekuntzak egingo zituela.

#### A.4 TRANSFERENTZIEK ETA DIRULAGUNTZEK ERAGINDAKO SARRERAK

Hona hemen 2018an transferentzia eta dirulaguntza arrunt eta kapitalezkoek eragindako sarrerak:

| KONTZEPTUA  | Euroak milakotan |               |
|---|------------------|---------------|
|   | ARRUNTAK         | KAPITALEZKOAK |
| <b>BIZKAIKO FORU ALDUNDIA</b>   |                  |               |
| Udalkutxa-zerga itunduetan partaidetza: 2018ko aurrerakinak .....               | 2.672            | -             |
| Udalkutxa-2017ko likidazioa .....   | 38               | -             |
| Kultur jarduerak eta beste txiki batzuk .....                                   | 11               | -             |
| <b>EUSKAL AUTONOMIA ERKIDEGOA</b>   |                  |               |
| Bidegorrien sarea handitzea .....   | -                | 80            |
| Sartzeko erraztasuna: Elorza kaleko atarietarako arrapalak .....                | -                | 36            |
| Euskararen sustapena, berdintasuna, euskara, bibliografia funtsak eta beste..18 | 10               |               |
| <b>BESTE BATZUK</b>   |                  |               |
| Itunpekoak ez diren zergetan partaidetza eta beste txikiago batzuk .....        | 7                | -             |
| <b>GUZTIRA</b>  | <b>2.746</b>     | <b>126</b>    |

Zerga itunduetan (Udalkutxa) Udalaren partaidetza gisa erregistraturiko diru-sarrerak 2018ko ekitaldiko konturako ordainketei eta aurreko urteko likidazio positiboari dagozkio. 2018ko 569.951 euroren likidazio positiboa 2019ko otsailean onartu zen eta Udalak ekitaldi horretako diru-sarrera modura erregistratu zuen.

Jarraian Udalak Gastu orokorretarako geldikina kalkulatzeko baliaututako 2018ko abenduaren 31ko finantzaketako desbideratzeak xehakatu dira:

| KONTZEPTUA  | Euroak milakotan |  |
|---|------------------|--|
|   | Zenbat.          |  |
| Hirigintzako aprobetxamenduak eta ondare-lursailen salmenta ..... | 11.462           |  |
| Bidegorrien sarea handitzeko dirulaguntza .....                   | 78               |  |
| <b>GUZTIRA</b>  | <b>11.540</b>    |  |

Hirigintzako araudiak agintzen du hirigintzako aprobetxamenduek eta Lurraren Udal Ondareko ondasunen salmentek eragindako diru-sarrerak baliatu behar direla lurra erosteko, narriatutako guneen zuzkidurak hobetzeko, ondare historikoa eta kulturala zaharberritzeko eta udalaren ekipamendu kolektiboetan hobekuntzak egiteko. Diru-sarrera hauek halaxe kontabilizatzen dira dagozkion urtean eta Udalak urteko itxierarekin kalkulatzeko dituzten helburuetarako oraindik erabili ez direnak.



Herri -Kontuen  
Euskal Epaitegia

Tribunal Vasco  
de Cuentas Públicas

## Inbertsioen besterentzea

Inbertsio errealen besterentzeak modu honetan xehakutzen dira:

| Euroak milakotan  |              |
|---|--------------|
| KONTZEPTUA  | Zenbat.      |
| Area 32 birsailkatz. hirigintzako hitzarmenetako sarrerak ..... | 2.332        |
| Beste txiki batzuk .....  | 22           |
| <b>INBERTSIOEN BESTERENTZEA 6. KAPITULUA GUZTIRA</b>            | <b>2.354</b> |

2007an Udalak areagotu egin zuen hasiera batean Arau Subsidiarioen 32. areari esleitutako eraikigarritasuna eta 3 jabe nagusiekin (% 88,6) adostu zuen eraikigarritasuna % 50 areagotzeagatik sortutako plusbalioetan udalak parte hartuko zuela. Hori kalkulatzeko, 2018an onartutako behin-behineko likidazioan aintzatetsi zen etxebizitza librearen metro karratu bakoitzeko 798 euroren aprobetxamendua izango zela. Likidazio honek Udalari 2 lursail eta aurreko hitzarmenen jabe sinatzaileei likidatzeko 2,5 euroren zenbatekoa esleitu zion. Udalak 2018an jabe nagusiari zegozkion 2,3 milioi euroren diru-sarrerak aitortu zituen eta 2019an erregistratu zituen beste bi likidazioak. 2 likidazio hauek eta Udalak ordaindu beharreko esleipenen aldeak Udalari 161.283 gastu garbia eragin diote.

33. arearen birsailkatzea behin-behinean 2018ko abenduan onartu zen, baina ez da behin betiko onartu txosten hau idatzi den datan. Sektore honetan eta ondoan dagoen 41 arean Udalak lehenago 1,7 milioi euroren hirigintzako obrak egin zituen 2018 baino lehenagoko urteetako aurrekontuaren kontura, dagozkion birsailkatzeak egiten direnean bi sektoreetako jabeei jasanaraziko dizkienak.

## A.5 LANGILERIA-GASTUAK

Gastu kapitulu honen xehakapena honakoa da:

| KONTZEPTUA   | Gastua<br>2018 | Euroak milakotan |                       |
|--|----------------|------------------|-----------------------|
|  |                | LANPOSTU KOP.    |                       |
|  |                | LZ               | Langileak<br>18.12.31 |
| Korporaziokideak (alkatea eta 1 zinegotzi) .....     | 105            | -                | 2                     |
| Funtzionarioak .....                                 | 335            | 8                | (a) 6                 |
| Langile lan kontratudun finkoak.....                 | 287            | 11               | 8                     |
| Aldi baterako lan-kontratuko langileak.....          | 2              | -                | 1                     |
| Produktibitate osagarria .....                       | 1              | -                | -                     |
| Ordainsarien guztizko partziala .....                | 730            | 19               | 17                    |
| Gizarte Segurantzari kotizazioak .....               | 203            |                  |                       |
| Pentsio osagarrietarako ekarpenak-Elkarkidetza ..... | 17             |                  |                       |
| Osasun-sorospena.....                                | 7              |                  |                       |
| Aseguruak, prestakuntza eta gizarte funtsa.....      | 8              |                  |                       |
| <b>1. KAPITULUA GUZTIRA</b>                          | <b>965</b>     |                  |                       |

(a) Bitarteko langile 1 hartzen du, lanpostua hutsik egoteagatik.

Langileen ordainsariak 2017koen aldean % 1,5 gehitu ziren, 2018ko urtarrilaren 1etik aurrerako ondorioekin, eta % 0,25 gehiago 2018ko uztailaren 1etik aurrerako ondorioekin. Gainera, 2018ko abenduan Udalbatzak beste LZ bat onartu zuen aldaketa hauek eginez: 2 lanpostu sortu zituen, beste 7ren osagarriak aldatu zituen zegokion balorazioa eginda (aldaketarik gabe kasu batean eta % 10 eta 16 bitarteko igoerak gainerakoetan), eta gainerako 11 lanpostuen berariazko osagarriaren zenbatekoa aldatu zuen; honek guztiak 2018rako aurrekontu egindako ordainsarien % 1,23ren ordainketak egitea eragin zuen.

Udalak Gizarte Segurantzaren ezintasun iragankor kontzeptuko prestazioak osatzen ditu eta 2018an guztira 3.446 euro ordaindu dizkie 2 langileri.

Udalak 2018ko abenduan Giza Baliabideen Plan estrategiko bat onartu zuen, zeinak aurreikusten baitu sustatzea erretiro aurreratua eta azken 15 ekitaldietan 10 urteko zerbitzu-aldia bete duten 60 urtetik gorako langileek uko egitea lanpostuari. Aurreikusi diren ordainketek gehienera 2,5 urteko osatzen dituzte (uko egindako ordainsarien erdia) eta gainera, lanpostuari uko eginez gero Udalak erretiroa hartzeko falta diren urteen Gizarte Segurantzako kotizazioak ordaintzen ditu. Prestazio hauek krediturik izateari baldintzatzen zaizkio eta 2019ko aurrekontuan 279.829 euro esleitu ziren, 3 langileri guztira 368.262 euro ordaindu zitzaizkiela.

### 2018ko altak

2018ko ekitaldian Udalak aldi baterako lan kontratu bat denbora partzalean egin du, Udaleko langile bat 6 hilabetez ordezkatzeko.



Herri -Kontuen  
Euskal Epaitegia

Tribunal Vasco  
de Cuentas Públicas

## A.6 ONDASUN ARRUNTETAN ETA ZERBITZU ETA INBERTSIOETAN GASTUAK

2. kapituluaren erregistratzen dira ondasun arrunt eta zerbitzuen kontratazioari dagozkion gastuak; ondotik xehakatu ditugu kontzeptu esanguratsuenak:

| DESKRIBAPENA  | Euroak milakotan |  |
|---|------------------|--|
|   | Gastua           |  |
| Alokairuak .....  | 17               |  |
| Konponketak, mantentze-lanak eta zaintza .....                            | 95               |  |
| Bulegoko materiala.....   | 29               |  |
| Hornidurak .....  | 435              |  |
| Eraikinetako energia elektrikoa eta argiteria publikoa .....              | 298              |  |
| Ura, gasa, erregaiak, jantziak eta bestelako hornigaiak .....             | 137              |  |
| Komunikazioak eta garraioa .....  | 35               |  |
| Aseguru primak .....  | 21               |  |
| Hainbat gastu .....   | 600              |  |
| Publizitatea eta propaganda .....   | 49               |  |
| Gastu juridikoak .....  | 12               |  |
| Jarduera soziokulturalak .....  | 336              |  |
| BFA-Garbiker SAK zaborraren tratamenduagatik tasa.....                    | 165              |  |
| Bestelako hainbat gastu.....  | 38               |  |
| Kanpoko enpresek egindako lanak .....                                     | 1.117            |  |
| Udal eraikinen garbiketa (kontratu berria 2018ko ekainaz geroztik).....   | 261              |  |
| Gune berdeen mantentze-lanak .....  | 191              |  |
| Gaztelekua eta ludoteka.....  | 165              |  |
| Kale garbiketa .....  | 146              |  |
| Zabor-bilketa .....   | 113              |  |
| Beste txiki batzuk .....  | 241              |  |
| Dietak, mugikortasuna eta lekualdaketak .....                             | 2                |  |
| Dedikaziorik gabeko zinegotzien dietak, udal bileretara joateagatik ..... | 60               |  |
| <b>2. KAPITULUA GUZTIRA</b>   | <b>2.411</b>     |  |

Hona hemen 2018ko inbertsioen xehakapena:

| DESKRIBAPENA   | Euroak milakotan |              |
|--|------------------|--------------|
|  | Gastua           | D-O          |
| Abadene 32. area urbanizatzea .....  | 103              | 467          |
| Hilerrri berrirako irispideak .....  | 124              | 148          |
| Metroa lurperatzeagatik saneamendu-lanak – Ur Partzuergoarekiko hitzarmena.....            | -                | 328          |
| Iturriaga bidea konpontzea, zoladura lanak eta beste txikiago batzuk.....                  | 289              | 158          |
| Azpiegitura eta urbanizazioaren guztizko partziala .....                                   | 516              | 1.101        |
| Eraikinak, gimnasioa eta 4 padel-pista .....   | 697              | -            |
| Eraikinak: futbol zelaiko aldageletan hobekuntza-lanak eta beste txikiago batzuk .....     | 237              | 19           |
| Eusko Ikaskuntzarekin hitzarmena, Urdulizko historia ikertu eta liburua argitaratzeko..... | 44               | 6            |
| Altzariak, bulegoko ekipoak eta beste .....  | 28               | 51           |
| <b>6. KAPITULUA GUZTIRA</b>  | <b>1.522</b>     | <b>1.177</b> |





## A.7 EMANDAKO TRANSFERENTZIA ETA DIRULAGUNTZA ARRUNTAK

Hona hemen gastuen 4. kapituluaren xehakapena:

| Euroak milakotan   |            |
|--|------------|
| Onuraduna eta diruz lagundutako jarduera   | Gastua     |
| <b>SEKTORE PUBLIKOARI TRANSFERENTZIAK</b>  | <b>285</b> |
| Urduliz Urbanismo Sozietatea SA .....  | 26         |
| Uribe Kosta Zerbitzuen Mankomunitatea .....  | 235        |
| Uribe kostako Behargintza SRL: 2018ko aurrekontuaren likidazioa .....  | 24         |
| <b>DIRULAGUNTZA IZENDUNAK</b>  | <b>193</b> |
| Uribe kostako Behargintza SRL: 8 langabetu kontratatzea .....  | 125        |
| Club Urduliz Futbol Taldearekiko hitzarmena: futbol zelaiaren mantentze-lanak .....                                | 15         |
| Club Urduliz Futbol Taldeari dirulaguntza .....  | 11         |
| Urduliz Eskubaloi taldeari dirulaguntza .....  | 11         |
| Kirolari lagunt.: Hitzar.: punta galea, pilota eskola, autom. taldea, tropela, herri kirola, laubide, ehiza taldea | 13         |
| Ampa, Txori lagun, Beti lagun, Inola, Iratxo gorria eta Bilbao Metropoli 30 elk. ....                              | 8          |
| Lehen mailako gizarte laguntza Asilo Barrika, Dya eta Gurutze Gorria .....   | 5          |
| Jataondo Landa Garapeneko elkarte (2 dirulaguntza) .....   | 4          |
| Euskarari laguntzak Eusko Ikaskuntza, Ibilaldia, Araba euskaraz, Nafarroa oinez, Kilometroak .....                 | 1          |
| <b>DEIALDI BIDEZ EMANDAKO DIRULAGUNTZAK</b>  | <b>5</b>   |
| Euskararen irakaskuntzarako laguntzak (21 ikasle) .....  | 5          |
| <b>BESTE BATZUK</b>  | <b>20</b>  |
| Zinegotzien 3 udal taldeei dirulaguntzak .....   | 19         |
| Eudel elkarte .....  | 1          |
| <b>4. KAPITULUA GUZTIRA</b>  | <b>503</b> |

Mankomunitateari egin beharreko ekarpena kalkulatzeko aurrekontuan jasotako mankomunitatutako zerbitzuen defizita hartu zen, 1,9 milioi eurorena, eta kide diren 7 udalen artean banatu zen, biztanleriaren arabera:

| Euroak milakotan   |                   |             |            |
|--|-------------------|-------------|------------|
| Kostu nagusien deskribapena  | Aurrekontua       |             | Zenbat.    |
|  | 2018ko gastua (*) | % (**)      |            |
| Gizarte ongizatea: oinarritzko zerbitz. langile propioak (6 gizarte laguntzaile eta administrari 1) .. | 420               |             |            |
| Gizarte ongizatea: etxez etxeko laguntza kontratua eta GLL dirulaguntzak .....                         | 827               |             |            |
| Gizarte ongiz.: ESGAKO kontratua, egoitzetxeetan egonaldiak, drogamenp., genero berdintas. .           | 737               | 11,4        | 88         |
| Ingurumena: papera, olio eta pilak biltzeko kontratuak .....   | 110               |             |            |
| Ingurumena: zerbitzuko langileak (4) eta bizikletak alokatzeko kontratua, ikastaroak, etab.....        | 501               | 11,9        | 74         |
| Hizkuntza normalizazioa eta itzulpena: langileak (2) eta jardueren kontratazioa.....                   | 408               | 14,7(**)    | 61         |
| Kontsumitzaileari informazioa emateko bulegoa: langileak (2) .....                                     | 127               | 11,4        | 12         |
| <b>GUZTIRA</b>   | <b>3.130</b>      | <b>12,5</b> | <b>235</b> |

(\*) Zerbitzuen kostua, aintzat hartu gabe gastu 456.315 euro gehiagotan aurrekontu egindako gastu orokorrak.

(\*\*)Urdulizen ekarpenaren ehunekoa, 7 udalen ekarpenaren aldean. Zerbitzuetako batean 2 udalek partzialki finantzatzen dute.

Aurrekontua egikaritzean desbideratzeak izan ziren eta Mankomunitateak 2018an 447.520 euroren aurrekontu emaitza doitu positiboa izan du eta Geldikin metatua 1,5 milioi eurora artekoa izan zen 2018ko abenduaren 31n. Mankomunitatearen Estatutuek diote udalen



ekarpenak baliatuko direla hartutako obligazio eta konpromisoak finantzatzeko eta horregatik, 2019ko maiatzean kitatu ziren egiazko datuak baliatuta, 21.697 euroren diru-sarrera izatea eraginez. Ez da 2018ko likidazioa egin; 2017koaren antzeko diru-sarrera eragitea aurreikusten da.

### **Uribe kostako Behargintza, SL**

Sozietate hau 2001ean Mankomunitateak eratu zuen eta 2007an bere akzioak eskualdeko 7 udalek erosi zituzten; Udalbatzak akzioen % 10,3 erostea erabaki zuen. Sozietatearen helburua da enplegua sustatzeko programak garatzea; kostu orokorrak udalen ekarpenen bitartez finantzatzen dituzte, Udalak 2018an onartutakoak 23.844 euro egin dituela.

Udalak 2018ko irailean 125.000 euroren dirulaguntza bat eman zion sozietate honi, bazterkeria arriskuan zeuden langabetuak kontratatzeke eta 2018ko abenduan abiarazi zuen exekuzioa; fiskalizatutako urtean 9.394 euroren kostua izan zuen.



## A.8 AURREKONTUKO ZORDUNAK ETA DIRUZAINNTZA

Hona hemen 2018ko abenduaren 31n aurrekontuko zordunen xehakapena:

| KAPITULUAK   | Aurrekontu itxiak |           |            |            | Euroak milakotan        |  |
|--|-------------------|-----------|------------|------------|-------------------------|--|
|  | 18.1.1            | Baliog.   | Kobr.      | 18.12.31   | Aurrek.2018<br>18.12.31 | GUZTIRA  |
| Ondasun higiezinaren gaineko zerga.....                      | 171               | -         | 171        | -          | 8                       | 8  |
| Trakzio mekanikodun ibilgailuen gaineko zerga .....          | 135               | 15        | 30         | 90         | 47                      | 137  |
| Hiri izaerako lursailen balio igoseraren gaineko zerga ..... | 42                | 34        | 2          | 6          | 13                      | 19   |
| Jarduera ekonomikoen gaineko zerga .....                     | -                 | -         | -          | -          | 4                       | 4  |
| Eraikuntza, instalakuntza eta obren gaineko zerga .....      | 245               | -         | 245        | -          | 3                       | 3  |
| Kultura zerbitzuak.....                                      | 3                 | -         | 3          | -          | 9                       | 9  |
| Obren lizentzia tasa .....                                   | 25                | -         | 25         | -          | 1                       | 1  |
| Lehen okupazioko tasa .....                                  | 4                 | -         | 4          | -          | 4                       | 4  |
| Hesiak, aldamiok etab. bide publikoan .....                  | 29                | -         | 29         | -          | 33                      | 33   |
| Jabari publikoaren erab. pribatua: enpresa hornitzaileak ... | -                 | -         | -          | -          | 8                       | 8  |
| Beste txiki batzuk.....                                      | -                 | -         | -          | -          | 2                       | 2  |
| <b>1etik 3rako kapituluaren guztizko partziala</b>           | <b>654</b>        | <b>49</b> | <b>509</b> | <b>96</b>  | <b>132</b>              | <b>228</b>   |
| 4 eta 7 kap. Transf. eta dirulag. arrunt eta kapit.....      | 34                | -         | 34         | -          | 89                      | 89   |
| 6. kap. Inbertsio errealeen besterentzea.....                | 217               | -         | 22         | 195        | 16                      | 211  |
| 8. kap. Aktibo finantzarioak.....                            | 1                 | -         | 1          | -          | -                       | -  |
| <b>GUZTIRA</b>   | <b>906</b>        | <b>49</b> | <b>566</b> | <b>291</b> | <b>237</b>              | <b>528</b>   |
|  |                   |           |            |            |                         | Nekez egingarri diren saldoetarako zuzkidura (260) |
|  |                   |           |            |            |                         | Kobratzeko saldoak zuzkiduratik garbi 268          |

Udalak 260.272 euroan balioetsi du 2018ko abenduaren 31n nekez kobragarri diren saldoentzako hornidura eta halakotzat jo ditu bi urtetik gorako antzintasuna duten saldoen % 100. Horien artean azpimarratzekoa da diru-bilketako betearazte-bidean dagoen 34. areako urbanizazio kargen ondorioz 2013ko 178.681 euroren likidazio batek eragindakoa, enbargatzeko idatz oharra egin delarik aipatutako urbanizazio kargak eragin zituen lursailaren gainean.

### Diruzaintza

2018ko abenduaren 31n banku-kontuetako saldoak (23,6 milioi euro) 21 milioi euroren eperako gordailuak barne hartzen zituen, epemuga 2019ko maiatza eta azaroa bitartean zutenak.



## A.9 AKTIBO EZ ARRUNTA ETA ONDARE GARBIA

Jarraian, Udalaren balantzeko aktibo ez korronteen osaera eta mugimenduak zehaztuko dira:

| Euroak milakotan  |                    |                    |               |                            |                    |
|---|--------------------|--------------------|---------------|----------------------------|--------------------|
| KONTUA  | Saldoa<br>18.12.31 | Inbertsioa<br>2018 | eskualdaketak | Erregular. eta<br>Amortiz. | Saldoa<br>18.12.31 |
| ibilgetu ukiezina.....                                      | 241                | -                  | 21            | -                          | 262                |
| ibilgetu materiala.....                                     | 97.893             | 1.522              | (21)          | 4.389                      | 103.783            |
| Lursailak .....   | 3.374              | -                  | -             | -                          | 3.374              |
| Eraikuntzak.....  | 17.356             | 897                | (840)         | -                          | 17.413             |
| Azpiegiturak.....   | 74.501             | 342                | (176)         | 58                         | 74.725             |
| Ondare historikoko ondasunak .....                          | 51                 | -                  | -             | -                          | 51                 |
| Beste ibilgetu material bat .....                           | 2.614              | 64                 | (44)          | -                          | 2.634              |
| Abian dagoen ibilgetu materiala .....                       | (3)                | 182                | 1.076         | 4.331                      | 5.586              |
| Lurraren ondare publikoa.....                               | -                  | 37                 | (37)          | -                          | -                  |
| Urduliz Urbanismo Sozietatea SAren finantza inbertsioa..... | 6.073              | -                  | -             | -                          | 6.073              |
| <b>IBILGETUAREN KOSTUAREN GUZTIZKO PARTZIALA</b>            | <b>104.207</b>     | <b>1.522</b>       | <b>-</b>      | <b>4.389</b>               | <b>110.118</b>     |
| ibilgetu ukiezinaren amortizazio pilatua .....              | (117)              | -                  | -             | (59)                       | (176)              |
| ibilgetu material eta inbertsioen amortizazio pilatua.....  | (10.984)           | -                  | -             | (749)                      | (11.733)           |
| <b>AKTIBO EZ KORRONTEA GUZTIRA</b>                          | <b>93.106</b>      | <b>1.522</b>       | <b>-</b>      | <b>3.581</b>               | <b>98.209</b>      |

2018an Udalak Abian dagoen ibilgetu materialera birsailkatu zituen zenbait saldo eta kontu horretan berean aurreko urteetako gastuak aktibatu zituen; kontu horren saldoak 2018ko abenduaren 31n osagai nagusi zituen gimnasioko obrak eta 4 padel-pistak eta Marusas 13. areako urbanizazio-lanak. Aurreko urteetako partidak aktibatzeak 4,4 milioi euroren emaitza positiboa ekarri zuen, aurreko ekitaldietako Emaizta positiboak gehitu zituela.

Udalak elementuen arabeko inbentario bat dauka, 2018ko abenduaren 31n eguneratua, 2009an egindako balorazio bat abiaburu hartuta egin zena eta gerora, inbertsioak gehitu zitzaizkiona. Inbentarioak elementu bakoitzean 2009ko saldoak eta geroko hobekuntzak xehakatzen ditu eta aldeak azaleratu dira 2009ko saldoen eta balorazioaren artean. Gainera, kontularitzan erregistrorik ez duten 2,5 milioi euroren kostuko 2 eraikin daude. Eta Udalak 32. arearen birsailkatzeagatik jasotako lursailei ere ez zitzaien alta eman, 1,8 milioi euroan balioztatuak.

## A.10 URDULIZ URBANISMO SOZIETATEA SA

### Ibilgetuko inbertsioak eta Izakinak

Hona hemen ibilgetuko inbertsioen eta izakinen osaeraren xehakapena:

| Deskribapena   | Euroak milakotan |              |
|--|------------------|--------------|
|  | Saldoa 18.12.31n |              |
| Lokala (Uribe Kostako Behargintza SLri alokatua) eta 6 garaje-plaza.....                     | (*)              | 128          |
| Higiezinen inbertsioen metatutako amortizazioa.....  |                  | (21)         |
| <b>IBILGETUKO INBERTSIOAK GUZTIRA</b>  |                  | <b>107</b>   |
| M-4 lursaila 14. arean: lursailen erosketak .....  | 528              | 587          |
| M-4 lursaila 14. arean: gastu orokorrak eta HILBIZ eta OHZ .....                             | 59               |              |
| Ospitaleko aparkalekua-eraikuntza proiektua: idazkuntza .....                                | 170              | 508          |
| Ospitaleko apark.-eraikuntza proiekt.: trafikoaren eta mugikortasunaren analisia (LEBER) ..  | 103              |              |
| Ospitaleko apark.-eraikuntza proiekt.: trafikoaren eta mugikortasunaren analisia, dirulag. . | (34)             |              |
| Ospitaleko apark.-eraikuntza proiektua: onikusiak (23.060 euro), entseguak eta beste .....   | 45               |              |
| Ospitaleko aparkalekua-egotzitako gastu orokorrak 2011-2018 (30.693 euro 2018an) ....        | 156              |              |
| Ospitaleko aparkalekua: obra, 2018ko abenduko egiaztagiria.....                              | 68               |              |
| Santa Marina gune naturalean lursailak eta hobekuntzak .....                                 |                  | 284          |
| Harrobi zaharreko lursailak .....  |                  | 101          |
| 2 lokal eta beste txikiago batzuk.....   |                  | (*) 71       |
| <b>IZAKINAK GUZTIRA</b>  |                  | <b>1.551</b> |

(\*) Sozietateak egindako 60 etxebizitzaren sustapenekoak.

Ospitaleko aparkalekuko lanak administrazio-kontseiluak esleitu zituen 2018ko martxoan 5,4 milioi euroren zenbatekoan, BEZa barne, eta 2018ko maiatzaren 26an hasi zen egikaritzen. Izakinetako zenbatekoa 2018an onartutako obra-egiaztagiri bakarrari dagokio.

Sozietateak harrobi zaharrean eta Santa Marinan gauzatutako jarduerak Udalaren kontura egindako ordainketei dagozkie eta 2018ko abenduaren 31n 385.192 euroren saldoa izan dute.

### Inbertsio finantzarioak eta diruzaintza

Finantza inbertsioetan eperako 6,5 milioi euro jarri dira, mugaeguna 2020ko urtarrilean dutela.

Sozietateak 3 kontu korrante ditu, 2018ko abenduaren 31n 215.922 euroren saldoarekin.

### Aktibo eta pasibo arrunta

Zor-saldo nagusia BEZagatik itzultzeko aitorpenek eragindakoa da, 261.793 euroren zenbatekoan. Zerga honen araudiak 8 urteko epea ematen du auto-likidazio negatiboa aurkezten denetik itzultzeko eskatzen den arte, saldoaren kobragarritasunean eragina izan dezakeela. Sozietateak ez du itzulketarik eskatu txosten hau idatzi dugun datan, saldoa berdintzea aurreikusi baitu etorkizunean egingo dituen likidazioen saldoarekin, eraikitzen ari den aparkaleku-zerbitzua abian jartzean eskuratuko dituenak.



Taldeko entitateekiko zorrek eragindako saldo hartzekodunak, 60.124 eurorenak, 2007 baino lehenago Udalak Sozietatearen kontura egindako ordainketetan du jatorria.

## Sarrerak eta gastuak

Sozietatearen diru-sarrera nagusia da izakinen guztizkoa 107.904 euro gehitu izana obren hasieraren eta gastu orokorrak aktibatu izanaren ondorioz. Hona hemen beste diru-sarrera esanguratsu batzuk: Udalak gastu arruntetarako egindako 26.317 euroren ekarpena; garaje-plazen 3.096 euroren alokairua; eta 9.789 euroren diru-sarrera finantzarioak.

Hornidura gastuen osagarri nagusia da aparkalekuko obren kontabilizatutako ziurtagiria, 67.086 eurorena.

Langile gastuak, berriz, 36.151 euro, Sozietateak duen langile bakarrari dagozkio.

Hona hemen ustiapen gastuen idazpuruaren xehakapena:

|  | Euroak milakotan |
|--|------------------|
| Deskribapena   | Gastua           |
| Probintzia Auzitegiari gora jotzeko errekursoak eragindako gastu juridikoak.....         | 11               |
| Ospitaleko aparkalekua: ingeniarien elkargoa, proiektuaren idazlaria, LEBER eta beste... | 9                |
| Kontabilitate-, lan-, zerga-aholkularitza.....   | 9                |
| Norberaren aseguruua, karguak eta erantzukizun zibila .....                              | 5                |
| Fotokopiagailua alokatzea eta kontabilitateko aplikazioaren mantentze-lanak.....         | 3                |
| Notaritzako ordainsariak .....   | 2                |
| Lokal eta garajeen komunitateko gastuak .....  | 2                |
| Bulegoko materiala, telefonoa eta beste txikiago batzuk.....                             | 4                |
| <b>BESTELAKO USTIAPEN GASTUAK GUZTIRA</b>  | <b>45</b>        |

Gastu juridikoak eragin ditu Sozietateak egindako etxebizitzaren sustapen baten jabeek aurkeztutako auziak, 2018an Udalaren aurkako epai bat ebatzi baitzen. Ebazpen hori Probintzia Auzitegiak berretsi zuen 2019ko martxoan eta agindu zuen Sozietateak 10.742 euro ordaintzeko konponketengatik eta 46.824 euro eraikuntza enpresaren eta sustapena kudeatu zuten profesionalen kostuengatik. Administrazio-kontseiluak 2019ko maiatzean formulatutako Sozietatearen kontuek ez dute kontzeptu hauetarako hornidurarik barne hartzen.



## A.11 KONTRATAZIOAREN ANALISIA

### AZTERTUTAKO ESPEDIENTEAK

Euroak milakotan

| KONTRATUA   | ESLEIPENA |         |               | Subro-<br>gazioa | Gastua<br>2018 | AKATSAK |      |   |
|---|-----------|---------|---------------|------------------|----------------|---------|------|---|
|   | Data      | Prozed. | Zenbat. (a)   |                  |                | A       | B    | C |
| <b>UDALA</b>  |           |         |               |                  |                |         |      |   |
| 1. Energia elektrikoaren hornidura (2 urte).....      | ira-2017  | Irekia  | 574 (b)       | -                | 287            |         | B2   |   |
| 2. Udal eraikinen garbiketa (4 urte).....             | api-2018  | Irekia  | 1.072         | 13               | 161            |         | B1,2 | C |
| Eskola publikoa aldatzea-handitzea.....               | aza-2018  |         | 63            |                  |                |         |      |   |
| 3. Gimnas. eta 4 padel-pistaren kudeak. (2 urte)..... | ots-2019  | Irekia  | 263           | -                | -              | A1      |      |   |
| 4. Gimnasiaorako 37 makina alokatzea (5 urte).....    | mar-2019  | Irekia  | 123           | -                | -              | A1      |      |   |
| 5. Gimnasioa eta 4 padel-pista eraikitzeako obra..... | uzt-2016  | Irekia  | 2.609         | -                | 672            |         | B1,2 | C |
| Gimnasioko sabaia aldatu-konpontzea.....              | uzt-2016  |         | 261           |                  |                |         |      |   |
| Gimnasioko sabaia konpontzea-obra txikia.....         | api-2018  | Zuzena  | 25            | -                | 25             |         |      |   |
| <b>UDAL SOZIETATEA</b>                                |           |         |               |                  |                |         |      |   |
| 6. Ospital ondoan aparkalekuko obra.....              | mar-2018  | Irekia  | 5.430         | -                | 83             |         | B1,2 | C |
| Gimnasioko sabaia aldatu-konpontzea.....              | mar-2019  |         | 441           |                  |                |         |      |   |
| <b>GUZTIRA</b>  |           |         | <b>10.861</b> | <b>13</b>        | <b>1.228</b>   |         |      |   |

(a) BEZa sartuta esleitutako zenbatekoak.

(b) Aleko prezioak: esleipen-zenbatekoa, 2018ko egiazko egikaritza datuekin balioetsia.

| AKATSAK  | Espediente<br>Kop | Esleip.<br>Zenbat. |
|--|-------------------|--------------------|
| <b>A ESPEDIENTEA ETA LIZITAZIOA</b>                              |                   |                    |
| 1. Pleguek ez dute lizitazio prezioaren osagaiak xehakutzen..... | 2                 | 386                |
| <b>B ESLEIPENA ETA EGIKARITZA</b>                                |                   |                    |
| 1. Esleipenean atzerapenak.....                                  | 3                 | 9.111              |
| 2. Esleipenaren/formalizazioaren publikotasuna.....              | 4                 | 9.685              |
| <b>C ESPEDIENTEAREN BERARIAZKO ALDERDIAK</b>                     |                   |                    |

## Beste erosketa batzuk

Berebat, beste erosketa batzuk ere aztertu ditugu eta ikusi dugu 2018an 3 kontratuk indarrean jarraitu zutela, kontratu mota horietarako aurreikusitako gehienezko iraupen aldia gaindituta.

| KONTZEPTUA   | Euroak milakotan<br>Gastua |
|--|----------------------------|
| Kale garbiketa (8 urtetarako 2007ko kontr. bereziak 2022 arte urtero luzatzea aurreikusten zuen) ..... | 146                        |
| Zabor-bilketa (10 urtetarako kudeaketa kontratuak 2017ko uztailean amaitu zuen indarraldia) .....      | 113                        |
| Eraikinak garbitzea (*) .....  | 103                        |

(\*) Kontratu berria tramitatzen 2016ko azaroan hasi zen, baina 2018ko ekainean hasi zen egikaritzen.

Kale garbiketa kontratua 8 urteko iraupeneko kontratu berezi modura kalifikatu zen, beste 7 urtez luzagarria. Kontrataturiko prestazioak zerbitzu-kontratuetan aurreikusitakoan artean barne har daitezke, kontratua esleitu zen unean gehienezko iraupena 4 urtekoa zelarik. Hala eta guztiz ere, Udalak urtero luzatu du kontratua eta indarrean zegoen fiskalizazio-gai izan den ekitaldian.

2018ko martxoan Udalarri administrazioko aholkularitza emateko zerbitzuak esleitu ziren 3 urtetarako, eta 2 kontratu prozedura negoziatu bidez izapidetu ziren (ekonomikoa eta laborala); 2 kontratuak aurrez zerbitzua ematen zuen enpresari esleitu zitzaizkion guztira 102.669 euroren zenbatekoan, BEZa barne.





## KONTUEN EUSKAL EPAITEGIAK URDULIZKO UDALAREN 2018KO EKITALDIKO FISKALIZAZIOAREN EMAITZARI EGINDAKO ALEGAZIOAK

### I. HITZAURREA

Jasota utzi nahi da –ez da txostenean hala jaso- udal honek baliabide pertsonal gutxi dituela, batez ere Estatuko Aurrekontu Orokorren legeek azken ekitaldietan ezarritako murrizketek eraginda, eta, horren ondorioz, zenbait lan eta kudeaketa ezin direla eman eta egin nahi litzatekeen bezain azkar, 2018an plantilla bera edo txikiagoa duelako 2010ean baino. Izan ere, handitu egin da nabarmen biztanleria, 3.438 biztanletik 4.496 biztanlera, eta, beraz, eman beharreko zerbitzuen eskaria askoz ere handiagoa denez, legezketasuna betetzea lehenesten ari da, fiskalizazio-txostenaren emaitzarekin egiaztatzen den bezala, epe eta izapide jakin batzuk zorrotz bete beharrean.

### II.1 LEGEA BETETZEARI BURUZKO IRITZIA

#### 1. alegazioa

*“Udalak indarrean izan zituen 2018an zabor bilketa zerbitzuaren kontratuak eta bide garbiketakoak, ekitaldian hurrenez hurren 113.425 eta 145.597 euroren kostua eragin zutenak. Lehenengoak indarraldia 2017an amaitu zuen eta bigarrenean 15 urteko iraunaldia ezarri zen 2007an, zerbitzu kontratueterako aurreikusitako 4 urtekoaz gainetikoa. Udalak publikotasun eta lehia printzipioak urratu ditu, derrigorrezkoa baitzen Udalak lizitazio berri bat abiaraztea (ikus A.11).”*

Zaborra biltzeko kontratuari dagokionez, 2018an (2018ko azaroaren 20ko osoko bilkurako erabakia) onartu zen zerbitzu horretarako kontratazio-espedita hastea; izan ere, aurreko kontratuaren aldia 2017ko ekainaren 20an amaitu ondoren, Urdulizko osoko bilkurak erabaki zuen Uribe Kostako zerbitzu mankomunitatea egiten ari zen azterlan bat amaitu arte itxarotea, hiri hondakinak biltzeko zerbitzua modu mankomunitarian esleitzeko egokitasunari buruzkoa hain zuzen, eta, horregatik, gastu publikoaren eraginkortasun-printzipioan oinarrituta, lizitazioaren hasiera atzeratzea eta aurreko kontratistarekin nahitaez luzatzea erabaki zen, lizitatzailer berri bat egon arte; 2019an esleitu da.

Kale-garbiketaren kontratuari dagokionez, aurreko lizitazio pleguan (2007) 8 urteko epea eta gehienez 15 urteko luzapenak jasotzen ziren. Garai hartan inork errekurritu ez zituen datu horiekin, zerbitzua lizitatu eta esleitu egin zen, eta zerbitzua Udalak nahi bezala eman denez, luzapenak egin dira. Hala ere, txostenean xedatutakoa ikusita, zerbitzuaren lizitazioa laster onartzea aurreikusi da.

Bi kasuetan, aurretiko lizitazio bat dago (2007. urtea), non publikotasun- eta lehia-printzipioak errespetatu ziren.



Herri -Kontuen  
Euskal Epaitegia

Tribunal Vasco  
de Cuentas Públicas

## 2. alegazioa

*“Udalari aholkularitza administratiboa emateko zerbitzua 2 kontratutan zatikatu zen eta enpresa berari esleitu zitzaion 2018ko martxoan 3 urtetarako, guztira 102.669 euroan, eskaintzak eskatuta prozedura negoziatu bitartez; horrek publikotasun eta lehia printzipioak urratzen ditu (ikus A.11).”*

Txostenean ondo adierazten den moduan, zerbitzu negoziatuak kontratatzeke bi prozedura jarraitu dira, eta bi prozesuetan bete egin dira ezarritako lege-betekizunak. Txostenak aholkularitza-zerbitzuaren zatikapenaz hitz egiten du, baina, egiaz, bi xederen aurrean gaude. Kasu honetan aplikagarria da Estatuko Kontratazio Publikoaren Aholku Batzordeak jarraitutako doktrina, besteak beste 72/18 espedientean jasotakoa, non honako hau adierazten baita: *“Estatuko Kontratazio Publikoaren Aholku Batzordeak hainbat aldiz ebatzi ditu kontratu publikoak zatikatzeari buruzko gai orokorrak. Gure doktrina orokorra txosten hauetan dago jasota: 57/09, 2010eko otsailaren 1ekoa, 6/2016, 2017ko apirilaren 27koa, 09/1ekoa edo 16/09.*

*Doktrina horrek adierazten duenez, sektore publikoko kontratuen xedea zatikatzeke debekuaren oinarria, Sektore Publikoko Kontratuei buruzko azaroaren 8ko 9/2017 Legearen 99.2 artikuluan txertatua (lege horren bidez, Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2014ko otsailaren 26ko 2014/23/EB eta 2014/24/EB Zuzentarauen transposizioa egiten da Espainiako ordenamendu juridikora), jokabide horren bidez publikizitatea edo esleipen-prozedura ezarri nahi da, kontratuaren balio zenbatetsiaren arabera galdagarriak diren arauak, kontratazio publikoaren elementu nagusia den aldetik. Horrek esan nahi du Legearen helburua ez dela izaera desberdineko edo berdineko hainbat prestazio artifizialki biltzea, baizik eta lehen aipatutako lege-iruzurra eragozte. Horregatik guztiagatik, manu hori ez da kontratu bakar batean antzeko bi prestazio edo gehiago sartzeko betebehartzat hartu behar, horien artean benetako lotura operatiborik ez badago eta horiek bereiz kontrata badaitezke edo, are gehiago, modu independentean ustiatu badaitezke.*

*Gure aurreko 31/12 eta 1/09 txostenetan adierazi dugu, halaber, kontratu biren edo gehiagoren xedeak antzekoak izan arren, elkarren artean independenteak badira, ez dagoela arrazoirik haien izapidetze bereizia ezinezkotzat jotzeko.*

*Ildo beretik, kasu jakin batzuetan, kontratua lotetan zatitu daiteke, eta halaxe adierazten dugu martxoaren 31ko 69/2008 txostenean, hau adierazten dugunean: “Kontratuaren zatikapenaz hitz egin ahal izateko bete behar den lehenengo baldintza prestazioen (edo prestazio-zatien) artean unitate operatibo edo funtsezko bat egotea da. Hala ondorioztatzen da, zalantzarik gabe, Sektore Publikoko Kontratuen Legean bertan. Lege horren arabera, kontratuaren xedeak zatikapena onartzen duenean eta espedientean behar bezala justifikatzen denean, zati bakoitza modu independentean gauzatzea aurreikusi ahal izango da, lotetan banatuta, betiere loteak bereizita erabili edo aprobetxa badaitezke eta unitate funtzionala osatzen badute, edo xedearen izaerak hala eskatzen badu.”*

Legeak, beraz, onartzen du kontratuaren xedea zatitu eta lotetan zatitu ahal izatea prestazioa osatzen duten zatiak, baldin eta berezita erabili edo aprobetxa badaitezke eta berez unitate funtzional bat osatzen badute. Horrek esan nahi du, prestazio baten zati batzuk, aipatutako bi baldintzak betetzen dituztenean, berezita tratatzeko aukera onartzen bada, askoz arrazoi gehiagorekin onartu beharko dela bi prestazio bereiz kontratatzea, berez unitate bat osatzen ez dutenak.

Erreferentziako kontratuetan, prestazioak berezita erabil edo aprobetxa daitezke, eta unitate funtzional bat osatzen dute berez; are gehiago, historikoki, Urdulizko Udalean aholkularitza ekonomikoa kanpora atera da, gutxienez azken hogeitaz urteetan, eta lan-aholkularitza, berriz, duela gutxi kanpora atera da, eta berriki bigarren mailako idazkaritzara aldatu denez, idazkaritzako eta Kontu-hartzailetzako plazak berezita, baliteke kanpoko aholkularitza ekonomikoa amaitzea, eta ez, ordea, lan arlokoa; beraz, frogatu da ez direla kontratu horien unitate funtzionala.

## II.2 URTEKO KONTUEI BURUZKO IRITZIA

*“1. Hona hemen Udalaren 2018ko abenduaren 31ko Gastu Orokorretarako Diruzaintza Geldikinean eta Ondare Garbian eragina duten doiketak:*

| KONTZEPTUA   | Euroak milakotan        |              |             |                   |
|--|-------------------------|--------------|-------------|-------------------|
|  | AURREKONTUKO            | ONDAREKOA    |             |                   |
|  | DIRUZAINZA<br>GELDIINAK | AKTIBOA      | PASIB.      | ONDAREA<br>GARBIA |
| A.3 2018ko erregistratu gabeko zerga-sarrerak OHZ, JEZ.....                              | 60                      | 60           | -           | 60                |
| A.3 HILBIZen itzulketa erregistratu gabe.....  | (94)                    | -            | 94          | (94)              |
| A.4 Udalkutxa 2018ko likidazioa.....   | 164                     | 164          | -           | 164               |
| A.4 32. arearen birsailkapena: esleipenen eta hitzarmenetako sarreraren aldeak .....     | (161)                   | -            | 161         | (161)             |
| A.4 33. eta 41. areetan Udalak aurreratutako urbanizazio lanak .....                     | 1.718                   | 1.718        | -           | 1.718             |
| A.10 Sozietateari gomendioak (Sta. Marina eta harrobi zaharra) eta zor saldoa.....       | (325)                   | 60           | 385         | (325)             |
| <b>UDALA GUZTIRA</b>   | <b>1.362</b>            | <b>2.002</b> | <b>640</b>  | <b>1.362</b>      |
| A.10 Etxebizitzaren sustapenen eroslearen erreklamazioa: kalte-ordainak eta kostuak .... | -                       | -            | (58)        | (58)              |
| <b>SOZIETATEA GUZTIRA</b>  | <b>-</b>                | <b>-</b>     | <b>(58)</b> | <b>(58)</b>       |

*2. Udalak ez du bere Ibilgetuan eragina duten egitate ekonomiko guztien kontularitzako erregistroa bermatuko duen jarraipenik egiten, eta ikusi dugu kontularitzako saldoak ez datozela bat 2009an egindako ibilgetuko balorazioarekin eta elementu jakin batzuen kontularitzako erregistro ezarekin. Hori dela eta, ezin jakin dezakegu Aktibo ez arrunteko saldoak, 98,2 milioi euro, aktiboaren 2018ko abenduaren 31ko egoera erreala islatzen duten (ikus A.9).*

*Epaitegi honen iritzira, aurreko paragrafoetan adierazitako salbuespenak alde batera, Urdulizko Udalaren Kontu Orokorra osatzen duten entitateen kontuek alderdi esanguratsu guztietan 2018ko ekitaldiaren jarduera ekonomikoa eta 2018ko abenduaren 31ko ondarearen eta finantza egoeraren isla zuzena erakusten dute; baita, data horretan*



Herri-Kontuen  
Euskal Epaitegia

Tribunal Vasco  
de Cuentas Públicas

*amaitutako urteko ekitaldiari dagozkion bere eragiketen eta eskudiruzko fluxuen emaitzena ere, ezargarria den finantza informazioaren arau-esparruaren arabera eta, zehazki, araudian jasotako kontularitzako printzipio eta irizpideen arabera.”*

## ALEGAZIOAK

Puntu hori A.3, A.4, A.9 eta A.10 eranskinetan garatu da, eta, horregatik, eranskin bakoitzeko alegazioak aztertu eta garatuko ditugu.

### A.3 ZERGA, TASAK ETA BESTELAKO SARRERAK

#### 1. alegazioa

*“Atzerapenak izan ziren Hiri izaerako Lursailen Balio Igoeraren gaineko Zergaren likidazioan, eta Udalari 2018ko abenduaren 31 baino lehenago jakinarazitako eskualdaketak zeuden, 2019an kitatu zirenak...”*

Likidazio horietan izandako atzerapenak, batez ere, udal honek dituen giza baliabideen urritasunak eragin zituen, alegazio hauen SARRERAN adierazi den bezala. Hala ere, udal honek, ahal den neurrian, Hiri-lurren Balio Gehikuntzaren gaineko zerga-kudeaketa arintzen saiatuko da.

### A.4 TRANSFERENTZIEK ETA DIRULAGUNTZEK ERAGINDAKO SARRERAK

#### 1. alegazioa

*“Zerga itunduetan (Udalkutxa) Udalaren partaidetza gisa erregistraturiko diru-sarrerak 2018ko ekitaldiko konturako ordainketei eta aurreko urteko likidazio positiboari dagozkio. 2018ko 569.951 euroren likidazio positiboa 2019ko otsailean onartu zen eta Udalak ekitaldi horretako diru-sarrera modura erregistratu zuen.”*

Puntu horri dagokionez, gaineratu behar dugu ezin izan zela erregistratu 2018ko ekitaldian Udalkutzaren likidazio positiboa, 2019ko otsailean egindako 2018ko ekitaldiko aurrekontu-likidazioa egin eta onartu ondoren onartu eta jakinarazi baitzitzaion udal honi.

Oro har, Udalkutzaren behin betiko likidazioaren emaitzak diru-bilketari buruzko aurrekontu-ekitaldi itxiaren hurrengo urteko otsailean/martxoan jakin ohi dira, eta, horregatik, ezinezkoa izaten da dagokion ekitaldiari egozte.

#### 2. alegazioa

*“Udalak 2018an jabe nagusiari zegozkion 2,3 milioi euroren diru-sarrerak aitortu zituen eta 2019an erregistratu zituen beste bi likidazioak. 2 likidazio hauek eta Udalak ordaindu beharreko esleipenen aldeak Udalari 161.283 gastu garbia eragin diote.”*



161.283 euroen kontabilizazioa 2019ko ekitaldian egin zen, eta 2019an zuzendu egin zen gorabehera hori.

### 3. alegazioa

*“33. arearen birsailkatzea behin-behinean 2018ko abenduan onartu zen, baina ez da behin betiko onartu txosten hau idatzi den datan. Sektore honetan eta ondoan dagoen 41 arean Udalak lehenago 1,7 milioi euroren hirigintzako obrak egin zituen 2018 baino lehenagoko urteetako aurrekontuaren kontura, dagozkion birsailkatzeak egiten direnean bi sektoreetako jabeei jasanaraziko dizkienak.”*

2019ko ekitaldiko Urteko Kontuaren Memorian gorabehera horren berri eman da.

## A.9 AKTIBO EZ ARRUNTA ETA ONDARE GARBIA

### 1. alegazioa

*“Udalak elementuen araberako inbentario bat dauka, 2018ko abenduaren 31n eguneratua, 2009an egindako balorazio bat abiaburu hartuta egin zena eta gerora, inbertsioak gehitu zitzaizkiona. Inbentarioak elementu bakoitzean 2009ko saldoak eta geroko hobekuntzak xehakutzen ditu eta aldeak azaleratu dira 2009ko saldoen eta balorazioaren artean. Gainera, kontularitzan erregistrorik ez duten 2,5 milioi euroren kostuko 2 eraikin daude.”*

Akatsa ikusita, 2020ko ekitaldiko kontuetan zuzenduko da.

### 2. alegazioa

*“Udalak 32. arearen birsailkatzeagatik jasotako lursailei ere ez zitzaaien alta eman, 1,8 milioi euroan balioztatuak.”*

Lurzati horien kontabilizazioa ez zen egin 32. eremuaren birpartzelazioa behin betiko onartu zenean, zeina 2018ko martxoaren 20an onartu baitzen; aitzitik, 2019ko urtarrilaren 22an kontabilizatu zen, eta egun horretan egin zen esleipen-diferentzien, kalte-ordainen eta hirigintza-hitzarmenen kontzeptuak jasotzen dituen behin-behineko likidazioa.

## A.10 URDULIZ URBANISMO SOZIETATEA SA

### 1. alegazioa

*“Sozietateak harrobi zaharrear eta Santa Marinaran gauzatutako jarduerak Udalaren kontura egindako ordainketei dagozkie eta 2018ko abenduaren 31n 385.192 euroren saldoa izan dute.”*



Herri -Kontuen  
Euskal Epaitegia

Tribunal Vasco  
de Cuentas Públicas

Urdulizko Arau Subsidiarioetan, lur horiek lurzoru dotazionaltzat eta sistema orokortzat jotzen dira. Hirigintzaren kudeaketa Sozietatearen helburuetan jasota dago, eta kudeaketa horien arteko bat da sistema orokorrak eskuratzea.

## 2. alegazioa

*“Taldeko entitateekiko zorrek eragindako saldoak, 60.124 eurorenak, 2007 baino lehenago Udalak Sozietatearen kontura egindako ordainketetan du jatorria.”*

Kontu korrante bat da, talde bereko Sozietatearen artean ohikoa dena. Kasu honetan, sozietatearen kapitala Udalarena da, ehuneko 100ean.

### III.1 AURREKONTUA, KONTABILITATEA ETA DIRU-SARRERAK

#### 1. alegazioa

*“Kredituak 2018ko aurrekontura txertatzeko espedientean 2016ko eta lehenagoko kredituak barne hartu ziren, 1,8 milioi euroren zenbatekoan; ordea, horiek ezin ziren hor jaso araudiak mugatu egiten dituelako txertaketa jarraituak.”*

10/2003 Foru Arauaren 32.4 artikulua ezartzen duenez, “Sartutako kredituak txertaketa egiten den ekitaldiaren barruan egin beharko dira, eta ez da bidezkoa izango ondoko ondoko txertatzerik, diru-sarrera finalistekin finantzatzen diren kapital-eragiketean kasuan izan ezik”.

Ildo horretan, eta transferentzia finalistak eta horrelako beste sarrera batzuk dituzten diru-sarreraren eta gastu finantzarioen kudeaketari, jarraipenari eta kontrolari buruzko araudira joz, diru-sarrera finalistatzat hartuko dira finantzaketa lotua duten gastuak finantzatzera bideratutako sarrerak, eta, aldi berean, honako hauek izan daitezke:

- Transferentzia finalistak, hau da, kanpoko agente finantzatzaile baten ekarpen oro, atxikitako finantzazioa duten gastuak finantzatzeko.
- Eta beste diru-sarrera finalistak, legez gastu jakin eta espezifikoko batzuei lotuta dauden diru-sarrera propioak, hala nola hirigintzako diru-sarrerak. Zehazki, Lurzoruari eta Hirigintzari buruzko ekainaren 30eko 2/2006 Legeak zehazten du zer erabilera izango duten ondasunak besterentzetik eta hirigintza-aprobetxamenduak eskudirutan bihurtzetik datozen hirigintza-sarrerak, eta helburu jakin bati lotuta egongo dira; beraz, onartutako gastuaren finantzaketari lotuta geratuko da sarrera.

Hala ere, atxikitako finantzazioa duten gastuen salbuespen hori dela-eta, berariazko jarraipena egin behar zaie, helburu bikoitzarekin: batetik, egiaztatu behar da ukitutako baliabideak dagozkien gastuak egiteko erabiltzen direla, eta, bestetik, aztertu behar da gastu horiek gauzatzeak zer ondorio dituen bi finantza-egoera garrantzitsu egiteko (aurrekontu-emaizta eta diruzaintzako gerakina); izan ere, horiek finantzatzen dituzten aurrekontuko gastuak eta diru-sarrerak ez dira, normalean, finantzaketa lotua duten gastu-proiektuen jarraipena eta kontrola Urdulizko Udalak egiten du urtero, eskuz, kalkulu-orrien bidez.



Herri -Kontuen  
Euskal Epaitegia

Tribunal Vasco  
de Cuentas Públicas

Bertan, gastu-proiektu guztiak, finantzaketa-eragilea eta finantzaketa-desbideratze positibo eta negatiboen kalkulua banakatzen eta zehazten dira, bai ekitaldikoak, bai metatutakoak.

Zehazki, 1,8 milioi euro honako gastu-proiektu hauei dagozkie:

- Elortza urbanizatzeko 2016.4.1534.PROY.R6 gastu-proiektua, % 91n finantzatua 36. areko F1 partzelaren salmentatik datorren eta atxikitako PMS finantzaketako diru-sarrerekin, 2017ko abenduaren 31n amaitu gabe dagoen proiektua da, eta 2018an zehar jarraituko du obrak, eta, horregatik, erantsi egin da.

Beraz, 000/1534/6010025 aplikazioa gehitu da 15.450,88 euroren truke; hortik 13.998,19 finantzaketa atxikia da, eta 1.452,69 finantzaketa orokorra.

- 2014.2.342.PROY 33 gastu-proiektua, % 100ean finantzatua, atxikitako PMS hitzarmenen finantzaketa-sarrerekin (34. arloa), 2016. urtea baino lehenagoko ekitaldietatik datorren proiektua da, kiroldegi-eraikin berria eraikitzeari dagokiona. Abenduaren 31n oraindik gauzatzen ari da, eta hurrengo urteetan gauzatzen jarraituko da, amaitu arte.

Beraz, 000/342/6220191 aplikazioa gehitu da, 1.407.568,60 eurokoa, eta hortik 1.407.568,60 finantzaketa lotua da.

- 2014.2.342.PROY 34 gastu-proiektua, % 100ean finantzatua, atxikitako PMS hitzarmenen finantzaketa-sarrerekin (34. arloa), 2016. urtea baino lehenagoko ekitaldietatik datorren proiektua da, kiroldegi-eraikin berria eraikitzeari dagokiona. Abenduaren 31n oraindik gauzatzen ari da, eta hurrengo urteetan gauzatzen jarraituko da, amaitu arte.

Beraz, 000/342/6220290 aplikazioa gehitu da 27.749,67 euroren truke, eta hortik 27.749,67 atxikitako finantzaketa da.

- 2016.2.453.PROY. R10 gastu-proiektua, % 100ean finantzatua, atxikitako PMS hitzarmenen finantzaketa-sarrerekin (34. arloa). 2016a baino lehenagoko ekitaldietatik datorren proiektua da, hilerri berrirako sarbidea eraikitzeari dagokiona. Abenduaren 31n oraindik gauzatzen ari da, arazoak sortzen baitira Aldundiaren baimenekin, eta hurrengo urteetan gauzatzen jarraituko da, amaitu arte.

Beraz, 000/453/6010392 aplikazioa gehitu da, 319.680,21 eurokoa; hortik 318.431,25 atxikitako finantzaketa da, eta 1.248,96 finantzaketa orokorra.

Ondorioz, finantzazio lotua duten kapital-eragiketen gastu-proiektuak eta partzelak besterentzetik edo hirigintza-sarreraren monetatik datozen finalistak direnez, ondoz ondo sartu ahal izango dira, erabat amaitu edo atzera egin arte. Egia da, oro har, gastu-proiektuak ez lirakeela atzeratu behar, baina, kasu horietan, obra garrantzitsuak direnez, eta, kasu batzuetan, udalaz kanpoko arazoengatik, proiektua amaitzean nahi baino gehiago luzatu dira.

## 2. alegazioa

